

# Berrigara



## Artzainen neguko ardura Arkumeak eta esnea

Citroën Xsara Picasso berria. Estilo eta proposamenetan, berritzaile

Irteera  
eskaintza berezia



CITROËN  
XSARA

*picasso*



**ION AUTOAK**

Amillaga 36, Bergara  
Tf. 943 76 47 49 / 73

**CITROËN**





# ARANZADI IKASTOLA



Gurekin hazi, hezi eta  
bizi euskaraz



Haur hezkuntzatik Batxilergora  
ikastolan bertan



Matrikulazio epea  
**otsailaren**  
**7tik 18ra**







# Transgenizatuak

Maite Aristegi / EHNEko Idazkari Nagusia

Seattle-en merkatuen liberalizazioa sareagotzeko egindako saioen porrotaren oihartzunak oraindik go-goan ditugunean, aste honetan guztion bizimoduan eragingo duen beste goi bilera bat egin berri da. Duda barik, orduko borrokaren jarraipena oraingo honetan ere.

Nekazaritza industrialaren alde egin duten estatuek, euren produkzio guztia saldu ahal izateko, nazioarteko komertzioa gehitu eta irabaziak lortu besterik ez dute helburu. Berdin zaie hainbat herrialdetan gosea zabaltzea, nekazaritza suntsitzea, menpekotasuna eragitea, produktuen kalitatea eta ingurugiroa piktara bidaltzea... Eta, argi ibili, gaurko martxan jarraituz gero, urte gutxi barru dozenardi multinazional talderen esku egon gaitezke eta, eurek erabakiko dute mundu guztiko produkzio eta salmentaz, haziez, uraz, lurraz..., patenteen bidez bizitzaren jabe eginez.

Eta Seattle-en, janari produkzioa, giza-ziaren oinarritzko eskubide izanik, nekazaritza negoziazio horietatik atera eta gobernuek produkzioa eta kontsumoa nekazari eta kontsumitzaileen premien arabera antolatzeke aktiboki lan egitea baino eskatzen ez bazen, hori baita go-

sea desagertarazi eta herriak bizirik irauteko bidea, aste honetako borroka ere oinarritzko eskubide baten aldekoa da, ingeneritza genetikoaz, landare, animalietan..., geure bizitzan eta ingurunean bortizki sartu nahi dituzten aldaketa ikaragarri gutxieneko kontrol batzuk jaretzea, besterik ez.

Hau irakurtzen duzunerako jakingo ditugu bileraren emaitzak, baina zer espero daiteke produktore handienek, AEBak buru, transgenikoen merkaturatze guztiz librea lotsarik gabe eskatzen dutenean, herrialderen batek transgenikoak erosteari uko egitea ere debekatu nahi dutenean, produktu hauek bereizita agertzerik nahi ez dutenean, produktu bat arrisksutzat jotzeko izugarritzko froga zorrotzak eskatzen dituztenean? Jakina, badakigu zelako hipokresiarekin

*"Gero eta txosten zientifiko gehiago dago orain arte dudakoak ziren eragin kaltegarriak benetakoak direla frogatzen dutenak"*

jokatzen ari diren hainbat gaitan, baina, jada disimulatu ere ez, kontrol bide hauek "galera handiak ekarriko lizkiokeela asko indartzen ari den sektore "bioteknologikoari" diotenean. Azkenean, produkzio eraldatu hori indarrean denean sartu nahi.

Baina guk, honetaz sekulako ezjakintasuna izan arren, argi dugu dagoeneko gure merkatuan eta dietan produktu transgenikoak baditugula, gero eta txosten zientifiko gehiago dagoela orain arte dudakoak ziren eragin kaltegarriak benetakoak direla frogatzen dutenak, nekazari bezala pobrezia, menpekotasuna eta aniztasuna galtzea dakarrela.

Momentuz, bost urteko moratoria bat badugu halako produkturik EAEn ez sortzeko, baina garbi dago ez dela nahikoa. Gizarte mailako eztabaida ezinbestekoa dugu, behar den informazioarekin, ikerketa zientifiko publiko askeak eginez. Halako produktuetatik gure osasuna eta alor sozio-ekonomikoa defendatze horretan, borroka luzea izango da, eta beti bezala, azkenean etorkizunaren giltza zeure esku ere badago. Ez baduzu, behintzat, "transgenizatu" bihurtu nahi.<

barruan



**E. Muruamendiaraz**

Sintragiko idazkari teknikoa

*"Gure benetako arazoa, tarifak igotzeko gaitasunik ez daukagula da"*

8.



**Eneritz Muguruza**

Bergara Igeri Elkartekoa

*"Igeri proba motzetan luzeetan baino hobeto aritzen naiz; besteetan fondoa behar da"*

23.



**Marta Gonzalez**

Tabernaria

*"Tabernan, bezero hobiak emakumiak izaten dira jeneralian, baina danetik dago"*

29.



## Farmaziak

### Eguakitza 28:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Zapatua 29:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Domeka 30:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Astelehena 31:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Martitena 1:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Eguaztena 2:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Eguena 3:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

## Ogia

Domeka 30: Ogizun.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 21

1-9-1-16-19-21 (osag.29/itz.4)

#### Astelehena 24

6-7-14-17-26-34 (osag.19/itz.1)

#### Martitena 25

18-24-26-42-44-48 (osag.1/itz.2)

#### Eguaztena 26

2-18-27-36-40-42 (osag.12/itz.0)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 22

3-18-19-24-36-42 (osag.28/itz.2)

#### Domeka 23 Saritzarra

1-14-15-17-18-32 (osag.49/itz.7)

### ONCE

Eguakitza 21: 30.466 (083 seriea)

Domeka 23: 84.373 (041 seriea)

Astelehena 24: 36.864

Martitena 25: 90.727

Eguaztena 26: 98.415


## hau be badou?!

### Autobusei tiraka

EEBBtan ohiko dira bitxikeria asko. Esate baterako, urtero-urtero, Las Vegas hirian egiten den lehiaketa: hogeit bat lehiakidek euren indarra zenbaterainokoa den erakutsi behar dute ia mila kiloko pisua duten autobusei tiraka. Lehiaketan indarrik handiena erakusten duen gizona (emakumeen berri ez du gu) EEBBtako indartsuen izendatzen ei dute urtebeterako.


## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



### Zapatua 29

Goizean estalita. Egunak aurrera egin ahala ostarteak irekiko dira. Goizaldean izotza egin dezake. Temperaturak gorra eta haizea mendealdetik.



### Domeka 30

Lehen orduetan behelainoa; eguerditik aurrera urdingunetak nagusi. Temperaturak apurka-apurka gorra egingo du, eta haizeak hegotik joko du arin.

## Ilargiaren aldiak



Ilbehera: urtarrilak 28



Ilberri: otsailak 5




Ilgora: otsailak 12




Ilbete: otsailak 19

## Eguzkia

Domeka, urtarrilak 30



Sortu: 08:29



Gorde: 18:32

## Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate  
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Eguena 20	2	0,5	-	6	4	-
Eguakitza 21	1,5	-0,5	-	6	4	-
Zapatua 22	2,5	0	-	6	3	2,6
Domeka 23	2,5	1	4,8	8	3	2,4
Astelehena 24	1,5	-1,5	-	5	1	-
Martitena 25	2,5	-2,5	-	6	-3	-
Eguaztena 26	3	-2,5	-	9	-6	-

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Azpijanian ibili

Konspiratu, azpijokoa egin.

- Aspalditxuan alkarrekin ikusteitut eta itxuria azpijanian dabitz.



JOSU OKINA

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

### GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kiroldegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### ABERIKAI / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

### BESTELAKOAK


Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73



# zorion agurrak



**Borja Pueyo**  
Otsailaren 1ean  
6 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak, Jon eta Josu.



**Juan Karlos Poza**  
Urtarrilaren 31n  
28 urte. Urte askotarako!  
Lagunak.



**Peio Alfaro**  
Urtarrilaren 30ean  
7 urte. Urte askotarako!  
Etxeko eta Jokin.



**Ibon Etxebarri**  
Urtarrilaren 29an  
2 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Judith Lizarralde**  
Urtarrilaren 29an  
6 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Argiñe Zurutuza**  
Urtarrilaren 30ean  
20 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak eta koadrilakoak.



**Itxaso Goenaga**  
Urtarrilaren 30ean  
3 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Joanes Ruiz de Egino**  
Urtarrilaren 30ean  
urtebete. Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Ugaitz Eguren**  
Urtarrilaren 28an  
15 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Ane Zabaleta**  
Urtarrilaren 30ean  
7 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Leire Zabaleta**  
Urtarrilaren 30ean  
12 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak; batez ere, Maite.



**Unai Irizar**  
29an 4 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak; batez ere, Josu eta Leire.

## ESKELA

### Manuel Zubia Gereka

Algortan hil zen 2000ko urtarrilaren 3an.  
Bere oroimenezko meza domekan, urtarrilak 30, eguerdiko 12:30etan, Bergarako San Pedro parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

### Manuela Murgiondo Larrañaga

Bergaran hil zen 2000ko urtarrilaren 12an, 81 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Eskelak hartzen dira eguazten eguerdira arte*



**Nerea Etxezarreta**  
Urtarrilaren 29an  
12 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaia.



**Anita**  
Otsailaren 2an  
15 urte. Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



**Txentxo**  
Otsailaren 2an  
41 urte. Urte askotarako!  
Olaia, Aitor, Hodei eta Aitzol.

## jaiotakoak

### BERGARA

#### Maialen Ibarra Beain

Urtarrilak 13

#### Eloy Diez Centeno

Urtarrilak 19

## hildakoak

### BERGARA

#### Maria Lizarralde Alberdi

Urtarrilak 19, 81 urte

#### Hipolita Gallastegi Narbaiza

Urtarrilak 22, 91 urte

#### Nikolasa Zurutuza Osoro

Urtarrilak 22, 86

#### Elvira Perez Blanco

Urtarrilak 23, 63 urte

#### Ziriaka Izagirre Belategi

Urtarrilak 24, 86 urte

## autobusak

**Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.

Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.

Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.

Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.

Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\*.

Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\*.

Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino)

**Bergara-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45.

Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

**Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatuak: domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

**Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35.

Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35.

Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00.

Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 13:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00.

Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35.

Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45.

Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

**Bergara-Bilbo.** Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10.

Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00.

Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

*Hurrengo alean, OTSAILAREN 4a eta 10a bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*



## ANTZERKIA

► **Taun-Taun** taldearen **"Txio txioka"** bihar, zapatua, 17:00etan Elorriko Arriolan.

► **Marxel** maguaren saioa bihar, zapatua, 19:30etan Elgetako Gaztetxean.

## MUSIKA

► Jam. Bihar, zapatua, **Cockney rejects, Suburban rebels eta Street bastards** 22:00etan Datorren eguakitzean, hilak 4, **Lagartija nick eta III**, 22:00etan.

## ERAKUSKETAK

► **Pello Alberdiren margoak** Nahikari tabernan.

## LEHIAKETAK

► **Justo Garate Arriola beka.** 1999ko deialdia historiako gaiei zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz burutuko da eta bekaren diruzenbatekoa 1.000.000 pezetakoa izango da. Eskariak aurkezteko epea otsailaren 15era arte zabalik. 943 77 91 58.

► **Gazte Informazio Guneak** deitutako kartel lehiaketa, 15 eta 26 urte bitarteko herriko gazteei zuzenduta. Lanak aurkezteko epea martxoaren 11n bukatuko da. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu.

## KONTZERTUA

### Petti

**Non:** Go-Jam aretoan  
**Noiz:** domekan, urtarrilak 30, 21:30etan  
**Sarrera:** 400 PTA

Petti nafar kantariak emanaldia eskainiko du domeka gauean Go-Jam aretoan. Joan zen urteko irailean bere bakarkako lehendabiziko lana plazaratu zuen 26 urteko kantari honek: Gaztelupeko hotsak zigiluaren laguntzarekin kaleratutako "Amets bat dauka" izenburuko diskoak harrera ona jaso zuen kritika zein Euskal Herriko musika zaletuen artean. Aurretik "Noise Hole" taldean aritu zen Petti bederatzi urtez, aipatutako talde rockeroa desegin arte. Ondoren, "Zup" taldeko kitarrajolea izan genuen eta Petti beraren hitzetan, "bi urte daramatzagu gure musika lantzen, estilo aldetik aldaketa ugari izan direlarik. Gure musika esperimental da eta ez dugu talde finko baten eragin nabarmenik".

Bakarkako emanaldietan kitarra akustikoa, multi-efektu bat eta ahotsa erabiltzen ditu kantari beratarrak eta folk eta

blues estiloak nagusi dira, "nahiz eta beste edozein doinuetara irekia nagoen. Esate baterako, Mark Lanegan, Calexico, eta beste hainbat". Besteak beste, Nick Cave edo Tom Waits ere aipatu izan dira Pettiren erreferentzien artean. Joan zen urtean berrogeitahamar kontzertutik gora eskaini zituen Pettik eta Javier Kraherekin (Iruñean) eta Iñaki Salvadorekin (Bilbon) eskenatokia konpartitu zuen. Xabier Montoia, Labanak, Morau eta Anarirekin ere kolaboratu izan du azkenaldian. Domekan, Go-Jamera hurbiltzen direnek, "Bera", "Ilusioa", "Askatasunik gabe", "Zeru infernu" eta beste hainbat kanturekin gozatzeko aukera izango dute.



Argazkian, Pettiren diskoak azala.

Argibideak jasotzeko deitu 943 77 91 57 telefonora.

Ondarroako Udaleko Euskara Zerbitzuan: 94 683 36 68.

► **Augustin Zubikarai literatura lehiaketa.** Batueraz zein bizkaieraz idatzitako narrazioak onartuko dira eta lanak entregatzeko epea otsailaren 11n bukatuko da. Argibideak

► **XIII. Arrasate lehiaketa:** komikia, irrati erreportajea, ipuina, poesia eta bertso papearak. Entregatzeko epea otsailaren 11. Argibideak AED elkarrean: 943 77 12 28.

## IKASTAROKAK

► **Yoga ikastaroa,** 12 urtetik 16 urtera bitarteko gaztetxoek zuzenduta, otsailaren 11tik apirilaren 14ra bitartean, 18:00etatik 19:00etara Irizar jauregian. Udaleko Gizarte

## LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
☎ 943 76 10 57



## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09





Ongizate zerbitzuak antolatuta. Izen-ematea (doan) otsailaren 4ra arte zabalik. 943 77 91 65.

**Ingurugiro-kudaketa**

jasangarrirako informazio eta partaidetza publikoari buruzko ikastaroa, Donostian urtarrilaren 31tik martxoaren 1era eta Bilbon otsailaren 1etik martxoaren 2ra arte, Haizea eta Ingurunek Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatuta. Plaza mugatuak. 943 39 22 29.

**DEIAK**

**Batera** plataformak deitutako kontzentrazioa gaur, eguakitz, 8etan San Martin Plazan.

**Euskal presoak Euskal Herrira** taldeak dei egiten die taldean parte hartzeko interesatuei, martitzenetan 20:00etan Kultur Etxean agertzeko.

**Bedelkarrek** antolatuta, komertzioaren erreforma fiskalaren inguruko jardunaldia martitzenean, otsailak 1, 14:15etan Kultur Etxean. Hizlaria: Alvaro Erviti, Merkataritza Federazioko ordezkaria.

**Hitzaldia:** "Baserriaren transmisioaren lege berria", egunean, hilak 3, 15:30etan Nekazaritza Ganbaran, Urteagan. Hizlaria: Pili Zubiarraín abokatua.

**Santa Ageda** egunean, otsailaren 4ean, Mariaren Lagundiako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleak

abestera irtengo dira. Batutako dirua Nikaraguara bidaliko da.

**OHARRAK**

**Hautesleen zerrenda** jendeurrean egongo da astelehenara arte, Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan, interesatuek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

**Udaleko Ingurugiro Batzordeak** deialdia egiten du San Martzial egunerako jarri eta kendu gabe dauden mahaiak erretiratzeko. Otsailaren 15era arteko epea iragan ondoren, Udalak dauden mahaiak kenduko ditu.

**Udalak** gogorarazten duenez, **trasteak biltzeko** kamioia hileko lehen eguaztean pasatzen da. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira betiko tokietan.

**JAIAK**

**San Blas.** Datorren egunean, hilak 3, Meza Nagusia izango da 11etan Murinondon eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dira.

**KINTADAK**

**1975ean** jaiotakoen bazkaria Zabala jatetxean martxoaren 11n. Izen-ematea (3.000 pezeta) Kutzako kontu zenbakian (0122922040) otsailaren 29ra arte.

**Z I N E A**

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades Tarzan**

Eguakitz: 19:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30.  
Domeka: 17:00.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

**Jugando con el corazon**

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
**Proxima parada Wonderland**  
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**

**House on Haunted Hill**

Eguakitz: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:30, 21:30.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 21:30.

**Tarzan**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR. Unzaga House on Haunted Hill**

Eguakitz: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto Musica del corazon**

Eguakitz: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola De ladron a policia**

Zapatua: 20:00.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

**El pequeño gran cazador**

Domeka: 17:00.

**AZKOITIA. Baztarto Nadie conoce a nadie**

Eguakitz: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

**Tarzan**  
Zapatua eta domeka: 17:15.

**TARZAN**

**Zuzendariak:** Kevin Lima, Chris Buck. ADIN GUZTIAK

Walt Disney produktora Edgar Rice Burrough idazlearen klasikoan oinarritutako oraingoan, marrazki bizidunen filme arrakastatsua egiteko. Zuribeltzeko filmetan ikusi ahal izan genuen Tarzanekin ez du zerikusirik handirik izango. Umorea ardatz nagusia dela, adin guztikoen gozameneko egindako filmea. Phil Collins britaniarraren musikarekin.

**JUGANDO CON EL CORAZON**

**Zuzendaria:** Willard Carroll.  
**Aktoreak:** Sean Connery, Geena Rowlands, Gillan Anderson.

≥ 13 URTE  
Willard Carroll zuzendariak erreparto bikaina bildu du. Gaur egungo Los Angeles hirian girotuta, belaunaldi eta bizimodu guztiz ezberdineko jendearen ikuspegia ematen zaigu, bikoteen arteko harremanak aztergai direlarik. Guztientzat maitasuna eta adiskidetasuna bilatzea izango da garrantzitsuena.

**PROXIMA PARADA...**

**Zuzendaria:** Brad Anderson.  
**Aktoreak:** Hope Davis, Alan Gelfan, John Benjamin, Victor Argo.

≥ 18 URTE  
Deauvilleko Zine Jaialdian publikoaren eta epaimahaia- ren sari berezita jaso zituen filme honek. Tren batean topo egiten duten erizain emakumezko bat eta akuario batean lan egiten duen gizonaren arteko erlazioa kontaktzen zaigu.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANZIA AGENTZIA  
Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telesforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**ETXE BERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**A R R A N O**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA



**Aste honetarako garraiolarien greba deituta zegoen Estatu mailan. Azkenean atzera bota dute deialdia, eta grebaren arrazoiak eta bertan behera lagatzearenak ezagutu nahi izan ditugu, Esteban Muruamendiarrak Gipuzkoako garraiolarien sindikatuko idazkariaren eskutik.**

**G.** Hilaren 26, 27 eta 28rako greba konbokatuta zeukan Errepide Garraioko Estatuko Batzordeak. Zergatik geratu da bertan behera deialdia?

**E.** Egia esan, aldez aurretik bagenekien azkenean greba deskonbokatu egingo zutela, urteetako esperientzia baitaukagu, eta badakigu gauza hauek nola diren. Hala ere, ez genuen esan nahi, beti trabak jartzen ibiltzen garela esango ziguten eta. Baina esan bezala, bagenekien akordio edo hitzarmenen bat egingo zutela. Azkenean, "declaracion de intenciones" delakoa sinatu dute Komiteko eta Gobernuako ordezkariak, eta hilabeteko epean negoziazioak izango direla suposatzen da. Dena dela, deialdia atzeratu egin da; iritsiko da datorren hilabetea, eta ez da ezertxo ere egingo. Ratok esango du ezin dela aldaketarik egin aurrekontuetan, iadanik onartuta daudelako. Europako Batasunak, berriz, ezin dela gasoilaren prezioa jaitsi hemen dagoelako merkeen gasoila...

**G.** Zer eskatzen zuen Komiteak?

**E.** Labur-labur esanda, gasoilaren zergak jaitea, edo, beste modu baten esanda, gasoilaren prezioa jaitea. Komitearentzat hori da dagoen arazo bakarra, eta hori zen beraien aldarrikapen edo eskaera bakarra greba deitzerakoan.

ESTEBAN MURUAMENDIARAZ  
Sintragiko idazkari teknikoa

## *"Garraio sektoreko arazo nagusia ez da gasoilaren prezioa"*



Esteban Muruamendiarrak, Gipuzkoako garraiolarien sindikatuko idazkaria.

**G.** Dena dela, zuek ez zentozten bat greba deialdiarekin. Zergatik?

**E.** Gure ustez, arazo nagusia ez delako hori, ezta arazo bakarra ere. Jakina, gasoilaren prezioa jaitsiko balitz, oso pozik hartuko genuke, baina hori baino arazo inportanteagoak badaudela uste dugu. Alde batetik, iruditzen zaigu, iaz 21

**"Gure arazoa, tarifak igotzeko gaitasunik ez daukagula da, baina Gobernuari ez zaio garraio prezioak igotzerik komeni"**

pezeta igo, eta orain, asko jota, hiruzpalau pezeta jaitsita, ez dela egoera asko aldatzen. Bestetik, kontuan hartu behar dugu aseguruak ere izugarri garestitu direla. Garraio sektorean benetako arazoa da ez daukagula gaitasunik tarifak, prezioak igotzeko, eta hori da guk lortu nahi duguna. Baina administrazioari ez zaio komeni garraio tarifak igotzea, KPIa (Kontsumorako Prezioaren Indizea) igoko litzatekeelako. Gure eskaerak onartu ez zituztenez greba deialdia egiterako orduan, ez genuen apoiatu.

**G.** Baina prezioak igoz gero, zela erantzungo luke-te bezeroek?

**E.** Prezio guztiak ari dira igotzen, eta geuk ere jateko adina emango digun soldata bat jaso nahi dugu hilaren bukaeran. Prezio igoera ez litzateke izango arrazoirik gabea, beste erremediorik ez daukagulako baizik. Kontuan hartu, adibidez, lehen esan bezala, iaz 21 pezeta igo zela gasoil litroa, eta guri horrek egiten dugun kilometro bakoitzeko sei edo zortzi pezeta gehiagoko kostua suposatzen digula. Eta kilometro piloak egiten dugunez, atera kontuak 10.000 kilometroko zenbatean igo den kostua. Horri aseguruaren igoera gehitzen badiozu... Iruditzen zait geuk ere badugula prezioak igotzeko eskubidea, eta hori da geuk aldarrikatu nahi duguna.

**G.** Zuen beste eskakizun horiek defendatzeko, antolatatu al duzue ekintzarik?

**E.** Oraingoz ez. Baina aurkeztuko dugu kalendarioa. Guk orain egin behar duguna zera da: Komiteari esan gauzak argi laga ditzala publikoaren aurrean. Deialdia egitean beraien benetako helburuak zeintzuk ziren argi laga dezatela.<




## Berrogei bat enpresa kokatuko dira Labegaraietako Industrialdean

Lanak datorren urteko ekainerako amaitzea espero da

**Labegaraietako Industrialdeako lanek aurrera darraite eta datorren urteko ekainerako lanak amaituta egotea espero da. Karmelo Azkoitia Industrialdeko gerentearen arabera Bergarako eta inguruko berrogei bat enpresa jasoko ditu Labegaraietako poligono industrialak.**

Karmelo Azkoitia Industrialdeko gerentearen hitzetan, "gure asmoa 2001. urteko erdialderako lanak amaituta izatea da. Zailtasun askori aurre egin behar izan diogu Industrialdearen proiektua aurrera ateratzeko, baina momentuan baikor naiz eta enpresariak ere interesa azaldu dute, izan ere momentu ekonomiko ona bizi dugu". Industrialdeak 40.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera izango du eta berrogei bat enpresa kokatuko dira bertan.

Industrialdean bi modalitate bereizten dira: alde batetik, zoru industrialak soilik erosteko aukera dago eta bestalde, Industrialdea bera izan daiteke pabilioiak erakitzearen arduraduna. Industrialdeak eginiko pabi-



Bergara eta inguruko herrietako enpresak kokatuko dira poligono industrial berrian.

lioiak martxoan bukatuta izango dira ziurrenik. Guztira, 7.200 m<sup>2</sup>ko azalera prest izango da.

### 19 ADJUDIKAZIO

Dagoeneko 19 enpresari pabilioiak adjudikatu zaizkie eta Azkoitiaren hitzetan, "era askotako enpresak izango dira Industrialdean: torlojutegiak, mekanizado-reak, arozzintza metalikoak, eskularruak egitera dedikatzen direnak... Gehienak

Bergarako enpresak izango badira ere, Antzuola, Soraluze edota Arrasateko enpresen eskakizunak jaso ditugu".

Enpresa txikiekin batera enpresa handiagoak ere izango dira Labegaraietako Industrialdean. Besteak beste, Galvanotecnia y Derivados (7.000 m<sup>2</sup>), GKN-Lazpiur (3.000 m<sup>2</sup>), Ugarla (2.000 m<sup>2</sup>), edota TTT (3.000 m<sup>2</sup>). Gutxituen pabiloi bat ere joango da.

### ZERBITZUAK

Industrialdeko urbanizazioak 650 milioi pezeta inguruko kostua izango da eta metro karratu bakoitza 70.000 pezeta ingurutan salduko da. Laister, tximinien ondoko eremua urbanizatzeari ekingo zaio. Bestalde, errepidearen bestaldean, terenoak erosteko asmotan ari da Udala. Aceriales enpresarekin negoziatioek aurrera egitekotan, zerbitzuetara bideratuko dira terenoak.

## KONDE



Burdinate 1  
943 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

## IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA


AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

## Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA





Zabalotegiko aretoa hainbat ikuskizun jasotzeko egokituko da aurten.

## Zabalotegiko aretoa berriztu egingo du Udalak aurten

**Udalak** Zabalotegiko aretoa berriztuko du aurten, bertan era askotako kultur ekitaldiak jaso ahal izateko. Kultur Zerbitzuko arduradunen asmoa azpiegitura hobetu eta, aldi berean, programazioari jarraipen bat ematea da. Inigo Alberdi kultur zinegotziaren arabera, "antzeztoki egokien faltan gaude, eta horrelako guñeak izatea beharrezkotzat jotzen dugu". Tekniber enpresa egiten ari da Zabalotegiko aretoa berrizteko proiektua eta udal aurrekontuak onartu bitartean, zifra ofizialik ez dagoen

arren, aurrekontua 20 milioi pezeta ingurukoa izan daiteke. Inigo Alberdik esan duenez, "urtea amaitu baino lehen inauguratzeko asmoa daukagu".

Hasiera batean, aretoak 150 lagunentzako tokia izango du, eta egin beharreko lanen artean, anfiteatro handitu egingo dela nabarmendu daiteke. Gainera, aretoko zorua egurrezkoa izango da, eserleku berriak jarriko dira (mobilak, eskenatokia handitu edo txikitzeko aukera izateko), argiztapen berria jarriko da, lokala margotu eta kameri-

no berriak egingo dira eta sarreran takila jartzeko guñea egokituko da. Fatxadan, "Zabalotegi Aretoa" izena duen kornisa jarriko da.

Aretoari programazio iraunkor bat eman nahi zaio eta musika emanaldiak, antzerkia eta bestelako espektakuluak antolatuta nahi dira, astero eskaintzaren bat ahal izanez gero. Dena den, aipatutako aretoa ez litzateke kultur ikuskizun handietarako irtenbidea izango. Alde horretatik, Udala Seminarioko elizan beste areto bat egokitzeko aukera aztertzen ari da.

### Eragin ezberdina greba deialdiak

**EH alderdiak** "Euskal Herria" lemapean egunerako deitutako greba deialdiak ez zuen eragin handirik izan herriko enpresetan. Esate baterako, Altos Hornos, Mayc eta Tavex enpresetan lanean izan ziren eta Geyser Gastech lantegian, berriz, 400 lagunek greba egin zuten eta beste 50 langilek lanera joatera erabaki zuten. Enpresa txiki gehienetan lana egin zuten eta komertzio askok ere zabaldu egin zuten. Hala ere, taberna eta denda ugari itxita izan ziren. Udaleko langileek ordubeteko geldialdia egin zuten.

Ikastetxeetan, Miguel Altuna eta Ipintza institutuetako ikasleek greba egin zuten eta Mariaren Lagundiako Lanbide Heziketako eta Aranzadi Ikastolako Batxilergoko ikasleek ere bai. Ikastetxeetako langileek ez zuten grebarik egin. Egunean zehar, presoen aldeko aldarrikapenak egin zituzten zuriz jantzitako hainbat lagunek. Bestalde, bezperan, gauez, EHk deitutako burrunba izan zen greba egunari begira.

## ARREGI

**Eraikuntza materialak**

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.  
Tf. 943 76 27 93



## KORTA-ZAR Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea**

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

## AGOITZ

**Tapizdenda**

Leizariako San Lorentzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47



# Sabino Arana Fundazioak Serafin Esnaola omenduko du domekan

**Serafin Esnaola** apaizak Sabino Arana Fundazioaren saria jasoko du domeka eguerdian, 12:30etan, Bilboko Arriaga antzokian izango den ekitaldian. Epaimahaia "Bizitza bateko ibilbidea" izenburuko saria eman dio Esnaolari, Gerra Zibilaren ostean, klandestinitatean, euskal apaizgintzaren alde eginiko lanagatik. Serafin Esnaola 1915ean jaio zen Errezilen, eta 1939 urtean apaiz ordenatu zuten. Bergaran aski ezaguna da, 28 urtez egon baitzen gure artean apaiz lanetan. Bere hitzetan, "Gerraren ostean, euskal apaizgintza erabat deseginda zegoen eta nik uste herriaren alde apaiz-

zok egindako lana saritu nahi izan dutela sari honekin. Garai hartan 800 lagun inguruk jazarpena jasan zuten eta, egoera horretan, apaizgintzaren berregiteari ekin genion. Oraindik ez da errekonozitu Euskal Herrian Elizak egindako lana, ikastolen sorreran esaterako". Esnaolak "El clero vasco en la clandestinidad" eta "El cierre de una Iglesia" liburuak eman ditu argitara.

## ZAZPI SARITU

Esnaolarekin batera, Margarita Robles Entzutegi Nazionaleko magistratua ("Euskaldunen laguna" saria), "Katxin" Uriarte zestalaria (Kiolak), Bultz-Lan Carita-

seko kontsultategia (Ekonomia-Gizartea), Turkiako demokraziaren aldeko juristak eta "Abuelas de la Plaza de Mayo" kolektiboak ("Munduaren ispilu" saria) eta Benito Lertxundi (Kultura) izan dira aurtengo sarituak.



## Tomasa Zabaleta Adinduen Kontseiluko presidenteordea

**Tomasa Zabaleta**, San Joxepe elkarteko presidentea eta Debagoienerako jubilatuen juntako presidentea, eratu berri den Gipuzkoako Adinduen Kontseiluko presidenteorde ere izango da. Kontseilua Diputazioko Gizartekintzak bultzatu du. Helburuen artean, adinekoendako programa eta zerbitzuetan parte hartzea lortzea eta atxekitzen zaien irudi estereotipatua gainditzea daude, alderdi baikorrak eta solidarioa aldarrikatuz. Kontseiluko presidentea Maximo Goikoetxea Gizartekintzako diputatua da.

ZURE  
ETORKIZUNA  
EUSKARAZ



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA  
MATRIKULALDIA  
ZABALIK

Alfabetatze, euskalduntze eta EGA ikastaroak (otsaila-ekaina)

### IZENA EMATEKO EPEA

urtarrilaren 24tik otsailaren 3ra  
16 urtez gorakoendako

### BULEGO ORDUTEGIA

goizez 08:30etik 12:30era  
arratsaldez 14:30etik 19:00etara

**BEKATZE SISTEMA ETA  
DIRU LAGUNTZAK DAUZKAGU!**

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tf.: 943 76 44 53  
Posta elektronikoa: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net



# Berrigara

395 zenbakia.  
2000ko urtarrilaren 28a.

**Errotalde Jauregia.** 20570 Bergara  
**Telefonoa:** 943 76 03 97  
**Faxa:** 943 76 29 77  
**Argitaratzailea:** JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate,  
Edu Mendibil, Tere Madinabeitia,  
Aintzane Irizar.

**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.

**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.

**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.

**Testuen zuzenketak:**

Estepan Plazaola, Alex Labaien,  
Maripi Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:**

Miguel Angel Elkorobereibar,  
Alex Labaien, Gorka Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez,

Gorka Ortega & Jon Alvarez,

Alex Ugaldel, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:** Juan Martin

Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari

Agirre, Antxon Agirre Sorondo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Berrigarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### HONDAKINAK JASOTZEKO ONTZIAK DIRELA ETA

Erreziklajearen inguruko mentalizazio kanpainak izan du eraginik herriaren kontzientzia ekologistarengan, baina ideia eta gogo horiek praktikan jartzeko baliabideak falta dira.

Azkenean, ilusioz ikusi ditugu kontenedore horiak. Herriko zenbait gunetan 100 bat metroko aldea dute euren artean kontenedore multzoek (urdin, berde eta horiak), eta ulertzen dugu horretan baduela eragina populazioaren dentsitateak.

Baina zer gertatzen da 500 metroan ezer ez dagoenean? Etxebizitzak ez dira Labegarietako kiroldegiaren parean bukatzen, baina handik aurrera ez dago kontenedore gehiago.

Zergatik ez dute beste multzo bat jartzen Altos Hornos lantegirako kamioien sarreraren eta Ibarra 14aren (Zabala taberna) tartean? Lekua soberan dago, eta zaborra biltzeko egun batean begiratzuz gero garbi geratzen da erreziklatu gabe geratzen den kartoi, kristal eta plastiko ugari sortzen

dela. Eta are gehiago sortuko da Industrialdea martxan jartzen denean.

Eskari hau behin eta berriz egin dugu Udaletxean eta horrela erantzun izan digute: "Debagoieneko Mankomunitatearen erantzukizuna da". Baina ez al da Udala herri osoarendako (inguruko auzoak ahaztu barik) horrelako zerbitzuak dagokion erakundeari eskatzeaz arduratzen dena?

Beste barik, lehenbailehen horrela egingo duela espero dugu.

M.Z. NAN: 15.329.022

### GIDA 2000

Gogorazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzenoi, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan, Kultur Etxean, daukazuela jasotzeko moduan.

Horretaz gain, datorren urteko gidarako norbaitek zeozer zuzendu nahi badu, deitu dezala BERRIGARARA: 943 76 03 97.

Berrigara

### ORDUBETEKO LANUZTEA

Euskal preso politikoen eskubideen alde egonik, Jarduneko eta BERRIGARAKO langileok ordubeteko lanuztea egin genuen egunean.

## tira biraka unai azkarate






atrebentzia ezpada

## ETAren azken atentauak arriskuan jarriko ditte alderdi abertzalien arteko elkarlana eta akordixuak?



**M. Jesus Salsamendi**

Gauzak zatarrak dare eta lehenbailehen konpontzea nahiko neuke. Elkarrekin jarraitzeko kondiziño batzuk bete beharko ditute.



**Joaquin Denis**

Presoen Euskal Herriratzearekin dana ebitauko litzake, aspaldiko aldarrikapena dalako. Abertzaliak batuta jarraituko dabela uste dot.




**Mari Kontxi Garaiondo**

Nire ustez, elkarrekin jarraituko dabe eta ez dot uste atentau horrek orain arteko lanian eragiñik izango dabenik.



**Maite Garmendia**

Arriskua dago, EHren iritzixa ez dago ta oso garbi. Su-etenak indarra emon zotsan eta presiño haundixak jasango ditte orain.



**Angel Herran**

Politika gaixetan gutxi sartzen naiz, baiña uste dot atentauak zelabaitteko eragiña izango dabela. Denboriak esango dau hori...



**Rikardo Mallabiabarrena**

Ez dot uste alderdixen arteko akordixuak apurtuko dienik. Dana dala, politika gutxi jarraitzen dot eta ikusi bihar zer gertatzen dan.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.

### APARKALEKUAK OZTOPATZEN

**Maite Aranzabalek** deitu digu aste honetan Kruz Gallastegiko aparkalekuetan ilara bikoitzean autoa lagatzen dutenen jarrera salatze-ko. Maitek dioenez, kontu hau aspaldikoa da eta ohitura bihurtu da inguru horretan ilara bikoitzean aparkatzea eta dagokion moduan autoa aparkatu dutenei irteera oztopatzea. Maitek ez du ulertzen gaizki aparkatzen dutenen jarrera, eta ezta udaltzainena ere: udaltzainek, beste toki batzuetan gaizki aparkatuta dauden autoei isunak jartzten dizkietelako eta, antzadenez, Kruz Gallastegikoei ez dizkietelako ipintzen. Ilara bikoitzean aparkatzen dutenei buruz, berriz, norbera ez molestatzearen, besteak molestatzea onartezina dela dio.

# EDEL

## TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

## PILI GISASOLA

*Santiveri*

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.  
☎ 943 76 58 83

# iRUDI

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

**Ibargarai 2  
943 6 51 65**

**GRUPO ZURICH**  
ASEGURUAK

**GABILONDO**  
AGENTZIA  
INMOBILIARIA

**Gurutzne Elgoro Gabilondo**

Barrenkalea 44, behea  
Tf./Faxa: 943 76 57 85

# JOXAN

## ARRAINDEGIA



**Ibargarai 24**  
Tf. 943 76 70 29



adituen esanetan

# Erreproduktzio teknikak

Giza erreproduktzio teknikak modu artifizialean erabiltzen direnak dira. Alde batetik, obulutegi-estimulazioak eragin daitezke, baina umetoki barneko haurdunaldiak lortzeko beste teknika batzuk ere badaude. Teknika hauek ernaldi arazoak dituzten bikoteei edota, beste arazo ginekologiko batzuen erruz, koi-toen bidez ernaldia lortzerik ez dutenei zuzenduta daude. Gero eta horrelako kasu gehiago dago: ernaldiak beranduago lortzen dira, espermaren kalitatea txarrera doa (adinagatik, batez ere) eta 30 urtetik aurrera ugalketa ahalmena gutxituz doa.

Bi teknika mota bereiztu behar dira: obarioak hiperestimulatu eta ondoren hazia umetokiaren barruan sartzea (ernaldi naturalaren antzekoa). Umetoki barneko inseminazioa ezkonlagunaren haziarekin edo, haziarekin arazoak tartean izaten direnean, semen-emaleen espermarekin egin daiteke. Dena den,



JOSE RAMON SERRANO

Ginekologoa

*"ICSI da emaitzarik onenak ematen ari den teknika; haurdun geratzeko aukerarik ez zuten emakumeei aukera berriak eman dizkie"*


donazioak gero eta gutxiago erabiltzen dira. Gehien erabiltzen den teknika *in vitro* izeneko da; obulu eta espermatozoidetara (gutxienezko kopurua beharrezkoa da) esker embrioi txiki bat lortzen da, hasierako fasean izoztu egiten da, eta hori da, behin emakumea hiperestimulatu eta gero, umetoki barnean sartuko duguna.

Baina azkenaldian emaitzarik onenak ematen ari den teknika ICSI (*Inyección intracitoplasmática de espermatozoides*) izeneko da, haurdun geratzeko aukerarik ez zuten emakumeei aukera berriak eman dizkiena. Mikroinjektzio baten bitartez, espermatozoidetara bakar bat nahikoa da obuluan sartu eta haurdunaldia lortzeko. Espermatozoidetara ez duten gizonekin erabil daiteke, espermatozoidetara bere formarik heldugabeenetan testikuluaren barrutik hartzeko aukera baitago. Teknika honek aurrerapen handiak izan ditu azkenaldi honetan.<



Erreproduktzio teknikak ernaldi arazoak dituzten bikoteei zuzenduta daude. ARTXIBOA

bergarako errota



## GOIMENDI edo EPELEKO ERROTA

Antxon Agirre Sorondo

Zenbait familiaren artean euren erabilerarako jasotako errota dugu. Hauek osatzen zuten elkarte hau: Goimendi erreka inguruko baserri hauek: Paigorri, Gongeta baserriko bi familia, Lasarte, Zulotagain, Zulota-azpi, Gontzarriko bi familia, Altuna eta Lopeko bi familia; eta Meatzerreka inguruko baserri hauek: Zarazar, Zarabari eta Montzon.

Biagorri errekekako urekin lan egiten zuen, honen eskuinaldean zegoen eta. Ura deposito handi baten pilatzen zen, eta 50 metroko tutu baten bidez eramaten zen erro-tara.

Bi harri pare zituen, eta normalean artoa eta garia lantzen zituzten.

1956an laga zion lanari. Orain oso hondatuta dago, aurri egoeran.

Epele erreka Arrasate eta Bergara udalerrien arteko muga dugu.

Kokalekua: Arrasatetik Elorri-rako errepidea hartuta, Kanpazar gainera iritsi aurretik, Altuna baserriaren azpialdean, eskuinaldera doan pista hartuta iristen da bertara; Biagorri eta Epele errekek bat egiten duten tokian dago.<

*"Bi harri pare zituen eta normalean artoa eta garia lantzen zituzten"*






MILA ELORTZA

## San Bixenteak Parteittin

Joan zen astebukaeran **Angiozarko Parteitti auzoan San Bixente jaiak** ospatu zituzten. Domekan, meza izan zen bertako ermitaren kanpoaldean, eta jende asko bildu zen, bai mezatan, eta baita ondoren, txorizo eta salda hartzen ere. Bestalde, **Kataide txakolinaren aurkezpena eta dastaketa** egin zen bertan. Baina ez ziren Parteittikoak izan joan zen asteburuko jai bakarrik. Uberan ere San Pauluak ospatu zituzten, eta hainbat ekitaldi izan ziren asteburu guztian zehar.



## A zer hotza!

**Inguruak zuri-zuri** aurkitu zituzten goiztiarrenek **eguzten goizean**. Luis Mari Agirre gure San Juango tenperatzen berriemailearen arabera, eguaztenean izan genuen azken **bi urte hauetako tenperaturarik baxuena, sei zero azpitik** markatzen baitzuen Luis Mari San Juanen duen termometroak. Baina era berean, **asteko altuena** ere eguaztenean bertan izan zen 9 gradurekin.



## Orfeoiari omenaldia

Bergarako Orfeoiak iaz 75 urte bete zituela eta, **Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak omenaldi txiki bat** egin nahi izan zion, plaka oroigarri bat emanez, joan den urtarrilaren 15ean egindako batzarrean. Hori dela eta, Zabalotegiko lokalean hartu gintuzten Zuzendari-tza Batzordeko kideek. Aipatzekoa da, Donostiako Orfeoia alde batera lagata, Bergarakoa dela Gipuzkoako zaharrena 76 urterekin. Zorionak, bada, eta ia beste hainbeste betetzen dituzuen!





## Rezola

*Ipintza baserria, Astigarraga*

Telefonoa: 943 55 66 37.

Apiril bukaerara arte zabalik.

Zapatu eta domeka eguerdietan zabalik.

Bertako janaria.

Arkumea burduntzian eta arraina  
parrilan enkarguz.

**100 lagunentzako lekua, eserita.**



## Aulia

*Aulia Enea baserria, Legorreta*

Telefonoa: 943 80 60 66.

Abendutik maiatz bukaerara arte zabalik.

Bertako janaria.

**140 lagunentzako lekua eserita nahiz zutik.**



*Egin  
txotx!*

# Txotxetik edan T o l a r e sagardotegietan!



## Zabala

*Garagartza baserria, Aduna  
(Andoain eta Billabona artean)*

Telefonoa: 943 69 07 74.

Urtarriletik maiatz bukaerara arte zabalik.

Zapatu eta domeka eguerdietan  
enkarguz bakarrik.

Bertako janaria.

**150 lagunentzako lekua, eserita nahiz zutik.**



## Otatza

*Otatza baserria, Zerain*

Telefonoa: 943 80 17 57.

Apiril bukaerara arte zabalik.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria nahiz norberak ekarria.

**170 lagunentzako lekua, eserita nahiz zutik.**



# kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias Maketazioa: Iñaki Iturbe Publizitatea: Uxue Zabaleta Erredakzio kontseilua: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga Testuen zuzenketak: Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu Telefonoa eta faxa: 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 51. zenbakia. 2000ko urtarrilaren 28a.

## Debagoieneko telebista proiektua

Idolazek Goiena komunikazio zerbitzua bultzatu nahi du


Joan zen abenduaren 21ean, Debagoieneko zortzi herrietako euskara elkartek Goiena proiektuaren egitasmoa bultzatzea adostu zuten. Egitasmoak bailarako telebista bat sortzea dauka lehenengo helburu bezala. Idolaz euskara elkarteak ere sinatu zuten egitasmoa.

**A**ntzuola, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati, Elgeta, Gatzaga eta Aramaioko herrietan ikusiko litzatekeen telebista proiektua bultzatu nahian ari dira bailarako euskara elkarteak, Idolaz barne. Proiektu hau, Goiena komunikazio zerbitzuak asmoaren barne kokatzen da. Hurbileko informazioa lantzea du asmo nagusitzat proiektu honek eta horretarako euskara elkarteak bazkide nagusitzat izango litzatekeen kooperatiba bat sortzea aurreikusten du. Kooperatiba hau bitariko kooperatiba izango litzateke, hau da, euskara elkarteak izango lirateke bazkide nagusienak, baina bazkide laguntzaileak ere izango litzuzke.

Idolaz euskara elkarteak bere egunean Kontuola sortzeari eutsi zion bezala, gaur egun bailaran sortu nahi den asmo honi ere baietza esan nahi lioke.

### AZALPENAK HERRITARREI

Idolazek egitasmo honi hasierako baietza eman dion arren, oraindik ere ez die bere bazkideei inolako azalpenik eman. Hori dela eta, Goiena proiektua aurkezteko bilera bat egin nahi du bazkide eta bazkide ez direnekin. Otsailaren lehenean, martitzenean, izango litzateke aurkezpen hori, Udaletxean, 20:00etan. Hantxe Goienaren nondik norakoak zein-



Debagoieneko sei euskara elkartek sinatu zuten Goienaren egitasmoa.

tzuk diren azaldu nahi dizkie Idolazek herritarrei eta horretarako Mikel Irizar, Goienaren bultzatzaileetako bat, etorriko da. Izan ere, Goiena martxan jarri arte, asko dira landu eta zehaztu beharreko gauzak eta hori dela eta, astero Debagoieneko euskara elkarteetako ordezkariak bilerak egiten dituzte Bergarako Kultur Etxean.

Udaletxean egingo den bilera horretan, martxan jarri nahi den telebistaren inguruko azalpenak emateaz gain, programazio posible bat ere aurkeztuko da.

### HERRITARREN BEHARRA

Udalean aurkeztu da egitasmoa eta Kultura batzordeak gaia mahai gainean dauka, baina herritarren iritzia zein den jakin nahi du. Hori dela eta, bilerarako deia egingo zaie udal ordezkariari, bai eta herriko kultur taldeetako ordezkariari ere. ■



### ARRASATE PRESSEKO ZUZENDARI BERRIA

Marijo Deogracias Kontuolako arduraduna, Arrasate Press Arrasateko astekariko zuzendari berria da iazko urte amaieratik. Arko-n urteak daramatza lanean, eta lehen Beñardo Kortabarría bezala, antzuolar bat dugu orain ere astekariaren gidari.



# Erakusketa eta botikak batzea



*Haurrek erakusketan parte hartzeko aukera izango dute.*

**Anelkar**, Antzuolako Elkartasun Taldeak elkartasun erakusketa bat antolatu du otsailaren 1etik 11ra bitartean. Helburua beste herrialdeetara eta beste

kultura batzuetara hurbiltzea da. Batik bat haurrei zuzendutako erakusketa denez, Herriko Eskolako neska-mutikoak erakusketara joango dira talde antola-

tuetan eta monitoreak izango dituzte. Erakusketa aktiboa da, hau da, parte hartzea bultzatzen du eta haurrek herrialde horietan duten bizimodua hobeto uler dezaten nahi dute antolatzaileek.

## BOTIKAK BATZEA

Bestalde, Anelkarrek bat egin du Arrasateko San Viator ikastolako elkartasun taldearekin, botikak biltzeko kanpaina egiteko. Batzen diren sendagaiak Costa de Marfilera bidaliko dira.

Laguntza eskaini nahi duenak, bi leku ditu aukeran: ikasleek Herriko Eskolara eraman ditzakete sendagaiak, otsailaren lehenetik 12ra bitartean. Oserantzean farmazian ere jasoko dituzte.

Aspirinak, antibiotikoak, hipertentsioa zaintzeko sendagaiak, bitaminak eta bestelako sendagaiak jasoko dituzte Anelkar elkarteko kideek.

Antolatzaileek adierazi dutenez "eskatzen den bakarra epea pasatutako sendagaiak ez ematea da".

# Erreka "atzetik eta itxita" nahi da

**Eusko Jaurlaritzak** proposatzen duenez, herriko plazatik pasatzen den erreka ezin da itxita joan. Legeak erreka zabalik behar dutela agintzen du. Udalak, ordea, lege guztietan bezala, salbuespenak egoten direla eta, honetan ere horiek zeintzuk diren zehazteko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Udalaren ustez, "Antzuolaren kasuan, plazaren atzetik egin nahi den ubidea itxita joan daiteke eta Surpe parean erreka dagoen bezala laga daiteke". Eusko Jaurlaritzaren proiektuaren arabera, Surpe parean errekarari tuberia handi bat jartzea aurreikusten da eta plazaren ostetik egin nahi duen gainezka-bidea zabalik izatea. Joan den urtarrilaren 13an, udalbatzarrean,

aho batez adostu zuten udal ordezkari guztiek proiektu hori arautzen duen legea aztertzea eta Antzuolaren kasuan salbuespena egitea. Izan ere, Zarautzen ere antzerako zerbait egin zen, askoz ere luzeagoa zen erreka batekin.

Udalbatzarrean adostutakoaren arabera "Deskarga ibaia desbideratu nahi deneko lurtean egindako azterlan geoteknikoaren emaitzetan agerian geratu zen proiektu hori burutzeak arriskua dakarrela, lurjausiak oso erraz



*"Herriko herri" irratsaioan erreka aritu ziren.*

sortuko lirakeelako. Gainera, kasu horretan, urak eragin zuzena izango luke plazako etxebizitzetako sukalde, gela eta komunitetan".

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Jose Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43

**AITZ-GARBI**



taberna  
jatetxea

Pintxoak eta kazulatuak.  
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51



# Jai arrakastatsua



Antiguokoek kantuan dakitela erakutsi zuten.

Urtarrilaren 15ean egin zen Antzuolarron Independetzia Eguna arrakastatsua izan zen oso. 240 lagun baino gehiago elkartu zen bazkarian eta bazkalostean era guztietako ikuskizunak egon ziren: herriko koadrilak, Antiguoko auzoak, oriotarrak eta mexikarrak tartean.

Ikuskizunik arrakastatsuenak, 17 lagunek egindako Ful Monti showa.



Flamencoak Marixu abestia kantatzen, bertso berezian.



Mexikon zela dantzan egiten den ikasteko aukera ere egon zen.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Ebagixa egin naiz eskuan.

1. ....

2. Ibiltzen joan gara baserrira.

2. ....

Izen-abizenak eta telefonua: .....

.....

**idolaz bertako hizkeria**  
ANTZUOLA

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Solfeua hasi bittartian irtengo gara kanpora.

2. Zure prakten modukuak dauzkatzat.

**Sarrituak: Txomin Alberdi eta Josu Agirre**

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian, **DATORREN EGUAKITZA BAINO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburua ere bat zozketatuko ditugu hamabostero.

**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 943 76 62 96  
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

**Euskal**  
**sukaldaritza**

**Eguneko**  
**menua**



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak

Teilatua • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89



Juan Kruz Mujika, Beterixo baserrikoa

# “Aguazilla etortzen zan txepleruekin”

Santa Ageda egunean Txangalako jaiak ospatzen dira, Galartza auzoan. Orain dela 20 bat urte elizako “kandeleruak harrapau zittuen. Oin dala 10 urte, ostera, egurrian etaratako Santa Anaren irudixa eta gero olixuakin ibiltzen zan lanparia”. Beterixoko Juan Kruz Mujikak esandakoak dira, horrek eta baia garai bateko jaiak nolakoak ziren.



H

olako jaiak izaten ziren?

Egunian bertan zelebratzen zan Santa Ageda eguna, hillan bostian. Auzoko lagun kuadrillak juntatzen giñan. Ni akordatzen naizela 36. urtia izengo zan. Aurreko egunian Santa Ageda eskia izeten zan eta afarixa egitten zeben. Hurrengo egunian, mezia lehenengo, don Tomas Iñarra Uzarragako abadiakin eta aguazilla (Juan Jose Urriategi lehenengo, gero Santos bere semia eta gero Eladio) etortzen zan txepleruekin. Aiuntamentua be etortzen zan eta etxian bazkaltzen zeban.

Ttanbolintteruak be etortzen zien eta baita soiñujoliak be. Bazkaita, abadia, sakristaua eta aguazilla etortzen zien eta ttanbolintteruak (Santi Montto eta Pedro) bazkalostian, honek Uzarragan bazkaltzen zeben eta.

Erromerixia Santa Agedan izeten zan eta etxian afaldutakuan errondia (oin gaupasia dana) egitten zan Beteri-

xoko bandixuan. Don Isidroren denporetan, oin dala 50 bat urte, gastau zan errondia.

Orduan erretirua plazan goizago egitten zan, bidekua jo eta gero, baiña hemen beranduago izeten zan.

Egun horretan barkillerua be etortzen zan, Bergatik.

**Meza nagusi bakarra egiten zen?**

Urtian barruan bost izeten zien: Santa Agedakua, udaberrihan kofradixakua, nobienbrian San Martin egunian hazixak bedeinkatzen zien eta San Antonate egunian, enuruan 17xan, ganauen mezia eta bosgarrena: konfuria egitten zaneakua, mozorruak eta akabatzeke. Santa Ageda egunian opillak eta kandelak bedeinkatzen zien.


**Zer bazkaltzen zenuten?**

Angulak eta oillaskua. Postria tartia izeten zan.

**Zenbat diru izaten zenuten jai egun horretarako?**

Duro bat edo, eta horrekin pasau. Gauzia merke zeguan orduan. Txikito batek txakur haundixa balio zeban. Orduan diruak asko balio zeban, baiña gauzak gutxi.

**Auzokoak bakarrik elkartzen zirenen?**



Txangalakuak eta Uzarragakuak. Lizarrakuekin ez giñan ondo konpontzen eta. 20 baserri giñan orduan, baiña propietarixuak bi bakarrik izengo zien, gerra pasau eta denboraldia arte. Txangala izengo zan Antzuolako auzorik pobriena. Danak errenteruek giñan. Orduan auzua milloi bat pezetan erosi zeikien. Oin etxako horrenbeste igertzen, baiña orduan asko igertzen zan. ■

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA BERGARA  
609 157 131 609 150 164

■ ■ ■  
“Hogei baserri giñan orduan, baiña propietarixuak bi bakarrik izengo zien. Txangala izengo zan Antzuolako auzorik pobriena”  
■ ■ ■



MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80


LEKU-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94



99/00 oraina euskaraz da



**EUSKALDUNTZE**

**2 orduko ikastaroak**

ORDUTEGIA:  
18:00-20:00  
19:00-21:00  
MATRIKULA PREZIOA:  
23.800 PTA

**HIZKUNTZ  
ESKAKIZUNAK**  
larunbat goizetan

ORDUTEGIA:  
09:00-13:30  
MATRIKULA PREZIOA:  
8.400 PTA

Informazioa eta matrikula:  
**AKULU EUSKALTEGIA**  
Masterreka 13.  
Tf: 943 76 05 18

**EGA**  
larunbat goizetan

ORDUTEGIA:  
09:00-13:30  
MATRIKULA PREZIOA:  
8.400 PTA

**EGA**  
asteazken zehar

asteazken 8 orduko ikastaroak  
MATRIKULA PREZIOA:  
16.800 PTA

**MATRIKULA EPEA,  
OTSAILAREN 12a**

**eman izena aek-n**



**MERKATARITZAKO JARDUNALDIAK**

**Komertzioaren erreforma fiskala**

*Zela aztertu sistema komenigarriena zein den*

Hizlaria: **Alvaro Erviti**



**2000ko otsailaren 1ean,  
martitzena, 14:15etan  
Bergarako Kultur Etxean**

Laguntzailea:

Antolatzailea:





**Bergaran erroldatutako ia 4.000 ardi-aziendaetik 300dik gora Elorregi auzoko Aierdi baserrikoak dira eta etxe inguruan daude negu parte honetan. Juan Joxe Murgiondo da bere artzaina eta egun hotz hauetan ia etengabe jaiotzen ari diren arkumeekin arduratzea da artaldeak ematen dion lanik handiena.**

**G**ipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Abeltzaintza Zerbitzuak 1998ko urritik 1999ko urrira bitartean egindako eroldaren arabera, 3.468 ardi-azienda daude Bergaran. Abere horietatik 166, aharriak dira eta gainerakoak, emeak. Artaldeak, berriz, 94 daude.

Artaldeak ez dira ardi-kopuruaren arabera bereizten, beraz, 94 horietako batzuk oso ardi gutxikoak ere izan daitezke. Ez da hori Aierdi baserriko jabeen kasua. Elorregi auzoan, ia 370 metroko altueran dagoen baserri honetan, hirurehundurik gora ardi daudelako, 305, zehazki. Eta arkumeak, berriz, 195. Denera, 500.

Juan Joxe Murgiondo da artzaina, 60 urtekoa, Aierdiko semea. Ardiez arduratzeaz gain, lan gehiago ere baditu baserrian, beste 50 ganadu-buru ere badituelako: behiak eta txahalak. Behor pare bat eta moxala, oiloak ere bai, eta, gainera, kalean saltzeko ogia egiten du. Lan hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko etxekoen laguntza izaten du, baita morroiarena ere, Jesus Benitorenara.

#### NEGUAN ARDIAK ETXEAN

Artzantzan lan desberdinak egiten dira urteko aroaren arabera. Horrela, eguraldi beroa egiten duenean artaldeak toki freskoetara eramaten dira, eta sasoi horren hasieran, ardiak jeztea eta gazta apur batzuk egitea izaten da lanik handiena, ardiak bere kabuz ibiltzen direlako zelaietan larrean.

Negu partean, berriz, lan gehiago izaten da. Lan askoko garaian harrapatu dugu, beraz, Juan Joxe. Ardiak etxean bertan edo gertuko mendi batean,

## Juan Joxe Murgiondo Mutikotan ardiak eduki nahi zituen artzaina



Zerainen, dauzka hilabete hauetan, eta belarrik ez dutenez, egunero jaten eman behar izaten zaie.

Goizeko 7ak aldera hasten dira lanak. Hasteko, askak garbitu behar dira aurreko eguneko jan-hondarrak kenduz. Pentsua botatzen da ondoren eta ardiak preso jartzen dira askan jan eta mugari ez daitezten. Une hori, jezteko aprobeztatzen da. Juan Joxek eskuz egiten du lan hori eta bi ordu behar izaten ditu 200 bat ardi jezteko. Ondoren, ardiak libratu eta alpapa botatzen zaie. Arratsaldeko 7etan, berdin.

Gainera, ardi batzuk hanketako gaixotasun bat izaten dute, eta horiek sendatu egin behar izaten dira, hasieran spray baten bidez emandako botika batekin eta, sendatzen ez badira, Terramicina izeneko antibiotikoa emanez.

#### ARKUMEAK JAIOTZEKO GARAIA

Lan hauetaz gain, garai honetan jaiotzen ari diren arkumeek ere arduratu behar da. Gabonak aurretixoan hasten dira arkumeak jaiotzen, ardiako bat edo bi. Aierdin, 195 jaio dira dagoeneko, gu baserrira iritsi ginenean bertan azken biak.

Arkumetxoek 20 egun edo hilabete bat dutenean, edo 10-12 kiloko pisua, kendu egiten dira, kiloko 400 pezeta kobratuz. Denak ez dira saltzen, ordea, batzuk hazteko lagatzen dira. Iaz, esaterako, 68 laga zituen Juan Joxek eta aurten gutxi batzuk ere bai.

**Ardiak arkumeak erditzen ari dira sasoi honetan eta artzainek gainean egon behar dute**

Arkumeak hazteko behar den baino esne gehiago ematen dute ardiek, jetzialdiko litro bat gutxi gorabehera. Esne-produkzioaren zati bat saldu egiten dute Aierdikoek, plastikozko poltsetan. Aur-





Juan Joxe Murgiondo bere ardiez inguratuta. Beste orrialdean, jaio diren bi arkumeak elkarrekin lotzen, amak biak batera haz ditzan. Goiko argazkian, ardia bere kume jaioberria miazkatzen ari dela ikusten da.

ten litroak 250 pezeta egin du. Gainerakoa, gehiena, berriz, gaztak egiteko erabiltzen dute: 300 litrotik 36-40 gazta atera daitezke. Kiloa 2.000 pezetan saltzen dute.

Esnea enbasatzea eta gazta egitea ikuilutik kanpoko lana izaten da, eta Aierdin lokal bat dute bereziki prestatura, enbasatzeko makinaz eta gazta egiteko tresneriaz hornituta. Gaztak gordetzeko gela berezia ondoan dago, hezetasun eta tenperatura zehatzak eduki behar dituena.

### ARRAZAREN HOBETUNTZA

Esnearen produkzioa asko zaintzen dute gaurko artzainek, arrazaren aldetik hobekuntzen bila ari dira eta. Horrela, ardi batek behar adina esne ematen ez badu, kendu egiten da eta haragitarako sal-

du, kiloa 120 pezeta besterik ordaintzen ez badute ere. Ahariak ere garrantzi handia dute, eta hauen haziaren kalitatea zaintzen dute. Inseminazioa ere erabiltzen dute, gero esne asko eman go duten arkumeak jaio daitezten. Inseminatzeko hazia Eusko Jaurlaritzak Arkauten duen zentrotik ekartzen da, eta bere kalitatea bermatuta dago. Ardiak inseminatzea subentzionatuta dago, baita esne-produkzio altuko ardiak haztea ere. Bakunak, bestelako botikak eta abar erosteko ere diru-laguntzak dituzte artzainek.

### UDAN ALOÑARA

Eguraldia epeltzen hasten denean, toki altuetara eroan behar izaten dira ardiak, ez baitute beroa ondo jasaten. Juan Joxek Aloñara eramaten ditu, Durura. Aspaldi erosi zizkion txabola, 5 hek-

**Ardi-esnea ez da lehen bezala saltzen. Aierdi baserrian, gazta egiten da batik bat**

tareako zelaia eta artaldea Oñatiko Bartolo Azkoitiari. Maiatzaren erdialdetik abuztuaren amaierara arte edukitzen ditu han ardiak; Juan Joxe bera ez da txabolan lo egiten geratzen, ardiak jertzitakoan etxera etortzen da eta. Bertan laguntzailea egoten da: Martin Inza. Artzainen uda garaiko lanaldia lasaiagoa da, ardiek zelaietan jaten dute eta. Jetzi ere hasieran egiten dira bakarrik, antzutuz joaten baitira eta, ondorioz, gazta askorik ere ez da egiten.


Baina esnea agortutakoan beste lan bat izaten da: ilea moztea. Ardi batek 3 bat kilo ile izaten du. Gaur egun, 20 pezetan saltzen du kiloa.

### LANERAKO JENDERIK EZ

Juan Joxe Murgiondo mutikotan zaletu zen artzaintzara. Arkumeak hazten hasi zen amaren laguntzarekin eta poliki-poliki ardiak erosten joan zen, bere garai onenetan 500 buru izatera ere heldu zen. Gaur egun 300 bat ditu, baina bere semeen artean lanarekin jarraitu nahi duenik ez dagoenez, artaldea murrizten hasiko da poliki-poliki.

Baliteke, ordea, egunen batean morroiren bat aurkitzea ardiak zaintzen laguntzeko, baina gaurko lan-egoera oso ona da, eta gazteek ez dute artzain izan nahi. Arantzazun dagoen artzain-eskolarra jo beharko du beharbada, ikasleren bati baserri honetara etortzeko gonbitea egin eta lanbidea behar bezala ezagutzeko aukera eskaini.<





Deba Arroko txapelketaren lehenengo jardunaldian Aloña Mendiren aurka jokatuko dute bergarrek martitzenean.

ARTXIBDA

## *Deba Arroko pilota txapelketa martitzenean hasiko da*

### *Bergarak Aloña Mendi taldea hartuko du Frontoian*

**Datorren martitzenean, otsailak 1, Deba Arroko pilota txapelketaren 53. edizioa jarriko da martxan. Lehenengo jardunaldian, Bergara K.E.ko pilota saileko jokalariek Oñatiko Aloña Mendikoen aurka neurtuko dituzte indarrak, 19:30etatik aurrera Udal Pilotalekuan.**

Aurtengo edizioan bi multzotan banatutako 11 talde izango dira lehian: alde batetik, Debabarreneko taldeak arituko dira (Elgeta, Soraluze, Eibar, Elgoibar eta Deba), eta bestetik, Debagoieneko taldeak: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Antzuola eta Bergara. Ohikoa den bezala, hiru kategoria bereiztuko dira: ka-

deteak, jubenilak eta seniorrak. Multzo bakoitzean, kategoria bakoitzeko bi bikoterik onenak sailkatuko dira, eta finalerdietan Debagoieneko eta Debabarreneko pilotariak elkarren aurka jokatu beharko dute. Finalerdiak apirilaren 11n eta 18an jokatu dira, eta finalak, berriz, maiatzaren 1ean Oñatin; izan ere, oñatiarrak ditugu aurtengo edizioko antolatzaileak.

#### **LIGA SISTEMA**

Txapelketan liga sistema jarraituko da, hau da, joaneko eta itzulerako partiduak jokatu dira. Aloña Mendiren kontra jokatu ondoren, Eskoriatza (kanpoan), Arrasate (Bergaran), Aretxabaleta (kanpoan) eta Antzuola (Bergaran) taldeak izango

dituzte aurrean bergarrek pilotariak lehen itzuleran. Kadete mailan bi bikote arituko dira: Asier Larrañagak eta Beñat Iñarrak osatutakoa eta Ander Gabilondok eta Mikel Leturiak osatua. Jubeniletan, Julen Aranburu, Joseba Herran, Joseba Orgaz eta Xabier Eguren izango dira jokatzeko aukera izango dutenak eta seniorretan, azkenik, Ander Murguruza, Igor Gutierrez, Iker Zabaleta eta Iñigo Zabaleta. Horrez gain esan beharra dago Abraham Larrañaga jubenilak Eibarko taldearekin jokatu duela; beste horrenbeste gertatuko da Eduardo Samaniego eta Ibai Redondo seniorrekin, Antzuolako taldearekin jokatu dute eta. Reyes Azkoitiaren arabera, "seniorren ka-

tegorian kompetentzia handia izango da, eta nik uste beraiekin eta jubenilekin izango dugula aurrera egiteko aukera gehien. Kadeteek ere gora egin dute, eta pozik nago izan duten hobekuntzarekin. Txapelketa hauek oso zabalak izaten dira, eta ikusi egin behar. Hasteko, borroka gogorra izango dugu Aloña Mendiren aurka, martitzenean".

Esan bezala, 1948an martxan hasitako txapelketa honen 53. edizioa izango da aurtengoa. Iazko txapelduinak Soraluze (kadeteetan), Antzuola (jubeniletan) eta Aretxabaleta (seniorretan) izan genituen. Bukatzeko esan Bergara K.E.ko pilota saila izango dela datorren urteko edizioa antolatuko duen taldea.



## Eskubaloi ikastaroa

**Deba bailarako** eskubaloi jokalaria eta entrenatzaileei zuzenduta, Jose Julio Barrenetxea entrenatzailearen eskutik eskubaloi ikastaroa izango da astelehenean, hilak 31, 19:00etan, Labegaraietako Kiroldegian. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

## Igerilekuak itxita zapatuan

**Bihar, zapatua,** "Manolo Garcia bizkortasun txapelketa" jokatu da, goizez, udal igerilekuan. Hori dela eta, igeritokiko bainu eremua itxita izango da erabiltzaileentzat 9:00etatik 14:00ak arte.

## Txirrindularitza lizentziak

**Txirrindularitza** federatu lizentzia berritu edo egin nahi dutenek Lokatza txirrindulari taldeak San Martin Plazan duen bulegora jo dezakete ostegunetan, 20:00etatik aurrera. Interesatuak 943 76 02 16 telefono zenbakian jaso ditzakete argibideak.



Argazkian, Kiroldegian egiten ari diren lanak ikus daitezke.

## Tenis pista hiru aste barru gertu

**Tenissinco** enpresako langileak Kiroldegiko kanpoaldeko kantxaren atzealdean tenis pista iraunkorra egiteko lanetan dira egunotan. Hasiera batean, tenis pista joan zen urtea amaitu baino lehen egitekoa zen, baina lanak atzeratzen joan dira, eta, eguraldiak laguntzen badu, hemendik hiru bat astera lanak amaituta egotea espero da.

Gogoratuko duzue, Udalak deitutako lehiaketara bost eskari aurkeztu ziren eta azkenean Tenissinco enpresa katalanari adjudikatu zitzaizkion lanak. Proiektuak 7.700.000 pezeta inguruko aurrekontua dauka.

Pista berriak 35 X 17,5 metroko eremua beteko du, eta kantxa inguratuko duen lau bat metroko hesi metalikoa jarriko da. Pistaren zorua *tenis quick* motakoa

izango da, eta Iñaki Ugarte-buru kirol teknikariaren hitzetan, "bere ezaugarrien artean euria egiten duen egunetan ura ondo xurgatzen duela aipatu behar da".

Azken urteotan hainbat eskaera jaso dira Udaletxean Bergaran tenis pista egiteko. Kirol Zerbitzuak antolatutako tenis ikastaroetan 14 lagun ari dira aurtan, 10 hobekuntza ikastaroan eta beste lau hasierakoan. Otsail aldera tenis txapelketa bat antolatzeko asmoa dago.

Bestalde, Kiroldegiaren inguan egingo den bidegorriaren proiektuak itxaron egin beharko du oraingoz. Ugartebururen arabera, "aurtengo aurrekontuetan proiektu hori sartuta dago, baina udal aurrekontuak onartu bitartean ez dakigu noiz egingo den".

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Bergara-Martutene

Lehen mailako jubenilak  
Zapatua. 16:00. Agorrosin

#### Bergara-Union Txiki

Lehen mailako kadeteak  
Zapatua. 17:45. Ipintza

#### Bergara-Idiazabal

Bigarren mailako jubenilak  
Domeka. 11:00. Ipintza

### ESKUBALOIA

#### Bergara-Legazpia

Jubenil neskek  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

#### Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak  
Domeka. 10:00. Kiroldegia

#### Bergara-Urnieta

Senior mutilak  
Domeka. 11:30. Kiroldegia

### IGERIKETA

Bizkortasun txapelketa bihar, zapatua, 10:00etatik 13:00era Udal Igerilekuan.

Estilo bakoitzeko 50 m. eta 100 m.ko probak eta 100 estilotakoak izango dira.

### ARETO FUTBOLA

#### Bergara Lagunak-Lasalle (Eibar)

Jubenil mutilak  
Zapatua. 12:30. Kiroldegia

#### Talleres Ola Bergara-Ordizia

Neskek  
Zapatua. 18:00. Kiroldegia

### PILOTA

Herri arteko pilota txapelketaren finalak gaur, eguakitzan, 19:00etan, Udal Pilotalekuan.

#### Bergara-Aloña Mendi

Deba Arroko Txapelketa Martitzenean, hilak 1, 19:30etan Udal Pilotalekuan

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako  
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**Ganbara**  
TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

**SANTOS**  
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA  
• SUKALDEKO ALTZARIAK •  
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10





# Labegaraietako futbito txapelketa

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Agirrebeña-Patxaran Team  
10:00: Pinturas Bergara-Moskis  
11:00: Mo(ko)lotov-Ari Ari  
19:00: Urrutxurtu-Mongatxurak  
20:00: Pagomendi-Etengabe

P. Bergara  
Mo(ko)lotov  
P. Bergara  
Etengabe  
Urrutxurtu

### ZAPATUAN KANPOAN

16:00: Azpeitxi Jatetxea-Sirimiri Eri  
17:00: A Ze Flaxa Etxagi-Buya  
18:00: Shaktale-Ortzi

Buya  
Ortzi  
Azpeitxi

### DOMEKAN BARRUAN

16:00: Tom Cat Argandolas-Patatus  
17:00: La Juve-Irubide Jatetxea  
18:00: Bayer-Bildurbarek Opel Lam  
19:00: Torrekua-Ion Autoak  
20:00: Soropotroak-Uve Bikoitza

La Juve  
Bayer  
Ion Autoak  
Soropotroak  
Torrekua

### DOMEKAN KANPOAN

09:30: Ufala-Txipiron  
10:30: Errotagain-Aterpe  
11:30: Guadalest-K. Piperrak  
12:30: Artusamak-Bar Canalejas  
16:00: Fac-Xurruapak  
17:00: Vacalouras-Agiñaspi

Errotagain  
K. Piperrak  
Artusamak  
K. Piperrak  
Agiñaspi  
Xurruapak

## EMAITZAK

### A MULTZOA

Etengabe-Mo(ko)lotov 2-1  
Irubide jatetxea-Pinturas Bergara 2-5  
Moskis-Pagomendi 0-4

### B MULTZOA

Patxaran Team-Amilox 4-4  
Amozkibar-Bayer 2-5  
Bildurbarek Opel Lam-Urrutxurtu 9-3  
Mongatxurak-Tom Cat Argandolas 5-2  
Patatus-Agirrebeña Jatetxea 3-3

### C MULTZOA

Uve Bikoitza-Vacalouras 0-3  
Ion Autoak-Soropotroak 2-2  
Ortzi-A Ze Flaxa Etxagi 3-4  
Agiñaspi-Shaktale 3-5

### D MULTZOA

Txipiron-Fac 3-13  
Xurruapak-Errotagain 0-3  
Bar Canalejas-Ufala 4-8  
Komando Piperrak-Artusamak 1-6  
Aterpe-Guadalest 0-3

## GORA ETA BEHERA



### Ufala, A Ze Flaxa Etxagi, Bayer, Patatus

Ufalak ezusteko galanta eman zion Canalejas taldeari, 8-4ko emaitzarekin irabaziz. A Ze Flaxa Etxagik eta Bayer taldeek lidergoari eutsi zioten eta Patatusk lehendabiziko puntua eskuratu zuen.



### Bar Canalejas, Txipiron

Bar Canalejasek D multzoko azkenaren aurka galdu zuen eta Txipiron taldeak azken jardunaldiko goleadarik handiena jaso zuen, Fac taldearen aurka 13 eta 3 galdu zuen eta.

## ARGI! Zigorrek ugalduz

Antolaketak 3 puntu kendu dizkio Aterpe taldeari Guadalesten kontrako partidura ez agertzeagatik. Gainera, partidua 3 eta 0ko emaitzarekin galdutzat eman zaio. Bestalde, zoritzarrez, zigor txartelak ugalduz doaz azkenaldian.

## SAILKAPENAK

### A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	33	12
2. Azpeitxi Jatetxea	24	12
3. Sirimiri Eri	23	12
4. Irubide Jatetxea	22	12
5. Pinturas Bergara	16	12
6. Etengabe	15	12
7. Ari Ari	13	12
8. Moskis	9	12
9. La Juve	6	12
10. Mo(ko)lotov	4	12

### C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	34	12
2. Ortzi	27	12
3. Shaktale	25	12
4. Uve Bikoitza	19	12
5. Vacalouras	14	12
6. Ion Autoak	13	12
7. Agiñaspi	13	12
8. Buya	10	12
9. Soropotroak	7	12
10. Torrekua	7	12

### B multzoa

	P	J
1. Bayer	29	12
2. Mongatxurak	24	12
3. Bildurbarek Opel Lam	22	12
4. Amozkibar	22	12
5. Urrutxurtu	20	12
6. Patxaran Team	15	12
7. Amilox	13	12
8. Agirrebeña Jatetxea	11	12
9. Tom Cat Argandolas	9	12
10. Patatus	1	12

### D multzoa

	P	J
1. Errotagain	32	12
2. Fac	26	12
3. Guadalest	25	12
4. Artusamak	25	12
5. Bar Canalejas	22	12
6. Xurruapak	16	12
7. Txipiron	10	12
8. Komando Piperrak	4	12
9. Aterpe	2	12
10. Ufala	1	12

Informazio hau babesle hauei esker:

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 ZUBILLAGA z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza  
2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

## mahoneroak



JON ANDUEZA  
Bergarako jokalaria

Zazpi partidu irabazteke egon ondoren, garaipen oso garrantzitsua lortu genuen zapatuan Zallaren aurka. Hasieratik hiru puntuak lortzeko gogoarekin zelairatu ginen eta partidu ona egin genuela uste dut. Zallako jokalariei presio handia egin genien, eta ez zuten euren jokoa egiterik izan. Partidua zaila izan arren, garaipena merezimendu osoz lortu genuen nire ustez, eta beste partidu batzuetan falta izan zaigun zortea gure alde izan genuen zapatuan.

Zapatuko garaipenak konfiantza emango digu datozen asteotan jokatu beharko ditugun partidu garrantzitsuei begira. Egia esan, hemendik aurrerako partidu guztiak oso inportanteak dira guretzat, baina datozen hirurak sailkapenean gertu ditugun Aurrera Victoria, Tolosa eta Lagun Onak taldeen aurka izango dira eta ahal dugun guztia eman beharko dugu aipaturako partiduetan. Ea zapatuko jokoari eta sasoiari eusten diogun zapatuan Gasteizen!

# Otsein Saria

Zallaren aurkako partiduan jokalariorik nabarmenduko ditugu:  
**Oxel Apraiz . . . . . 3 puntu**  
**Markel Egaña . . . . . 2 puntu**  
**Josetxo Lizarralde . Puntu 1**

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.



kronika junior mailako saskibaloit taldea

## Hasiera onik ez 2. faseari

**BERGARA** 47

**ORDIZIA** 63

**Bergara:** Gorka Lagoma (4 puntu), Mikel Larrañaga (2), Denis Armendariz (19), Gorka Lobato (2), Andoni Gonzalez (7) - hasierako boskotea- Jokin Hernandez, Iban Igartua, Jon Fernandez (4), Iosu Aranzabal, Ion Beistegi (7) eta Peru Azkarate.



David Bouzas eta Angel Ortiz entrenatzaileak bere jokalariekin domekan ateratako argazkian.

Bergarako junior mailako saskibaloit taldeak ezin izan zuen Ligako bigarren faseko lehen garaipena eskuratu, Ordiziaren aurka galdu baitzuten domeka eguerdian Mariaren Lagundiko kantxan jokatuako partiduan. Ligan zazpigarren tokian sailkatu ondoren, Bergara igoyerak eta jai-

tsierak erabakiko dituen ligan ari da orain eta orain artean jokatuako bi partiduetan galdu egin ditu David Bouzasek eta Angel Ortizek zuzentzen duten taldeak. Domekako partiduan, Ordizia taldearen aurka ezinean aritu ziren bergararrak. Hasie-

ratik, bisitariak aurreratu ziren markagailuan, eta 13 puntuko alde lortu zuten ordiziarrek lehen zatian (10-23). Hortik aurrera, etxeko ei ezinezkoa egin zitzaizen markagailuan hurbiltzea, eta partidu osoan atzetik joateak eragina izan zuen

etxekoengan. Ordiziako entrenatzaileak 6 jokalaririk ez zituen ekarri, baina nahikoa izan zitzaion garaipena eskuratzeko.

Atsedenaldiraren ondoren, Ortizek eta Bouzasek zonan jokatzeko agindu zituzten euren jokalariei, eta, horri esker, bergararrak hobeto aritu ziren, eta alde gutxiago lortu zuten. Hala ere, entrenatzaile ordiziarrek, etxeko taktikaz ohartuta, hutsartea eskatu eta horri aurre egiteko eskema jarri zuten jokoan. Amaieran, 15 puntuko aldearekin nagusitu zen Ordiziako taldea.

Etxeko aldetik, Denis Armendariz izan genuen saskiratzaile onena; Andoni Gonzalez, berriz, ez zen bestetan bezain fin aritu. Angel Ortizen arabera, "Lehen mailara igotzeko sailkapeneko lehen bosten artean sartu beharko gara, eta zaila daukagu. Hala ere, Oñati, Urretxu edo Arrasatearen aurka gure aukerak izan ditzakegu". Astebukaera honetako atsedenaldiraren ondoren, datorren astean, Bergarak Oñatiko taldea hartuko du etxean. Gora egiten hasteko ordua izan daiteke.

### ENERITZ MUGURUZA/ Igerilaria

## "Igeri proba motzetan hobeto nabil"

**Bergara Igeri Elkartearen ordezkatzuz, Eneritz Muguruzak (16 urte) eta Antxon Maiztegiak parte hartuko dute bihar, zapatua, goizeko 10etatik aurrera Udal Igerilekuetan jokatuako den bizkortasun txapelketan. Eneritz 100 m.ko estilo proban aterako da.**

**G.** Proba motzak gustokoago dituzu?

**E.** Bai, hobeto ibiltzen naiz motzetan luzeetan baino. Luzeetan fondoa izatea beharrezkoa da eta horregatik motzak, distantzia laburrekoak, gehiago gustatzen zaizkit.

**G.** Zein estilotan aritzen zara ondoen?

**E.** Bizkar estiloan. Hori da gehien gustatzen zaidana. Aurretik, Gipuzkoako txapelketa absolutuetan 3. izan nintzen 100 eta 200 m. bizkarreko probetan eta otsailaren erdialdean adinako Gipuzkoako txapelketa jokatu da. Horretarako prestatzen ari naiz.

**G.** Emaizta hobetzeko aukera duzu, beraz.

**E.** Ez pentsa, txapelketa absolutuetan nire aurretik geratu zirenak nire maila berekoak direlako. Gauzak zailak jarriko dizkirate.

Nire helburua hor aurrean egotea da.

**G.** Zenbat kilometro egiten dituzu igerian astean?

**E.** Egutero lau bat kilometro egiten ditut eta astean 20 bat. Kirol gogorra da eta gogoia edukitzea behar da entrenatzeko, oso sakrifikatua delako.

**G.** Itsasoko trabiesetan ere parte hartu izan duzu.

**E.** Uztailean, denboraldiari bukaera emateko Getaia-Zarautz trabiesian parte hartu izan dut, Ondarrukoan ere bai... baina itsasoan igeri egitea ez zait hainbeste gustatzen.





**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m<sup>2</sup>ko ganbara. 943 76 21 80.

S. Lorenzo. 943 76 38 87.

Fraiskozuri. 943 76 54 24.

**EROSI**

Pisua erosiko nuke Zurraideron. 943 76 52 31.

**ERRENTAN EMATEKO**

Pisua errentan Antzuolan. 943 76 60 16.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Bergaran edo inguruan etxea alokatuko nuke. 629 01 56 91.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 76 50 77 (Manu).

**ETXE KONPARTITUAK**

Pertsona bat behar da etxe bat konpartitzeko. 943 76 31 23.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Pertsona bat behar da Bolun pisua osatzeko 943 76 08 00 (Alberto).

Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 22 22.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

nahi nuke S. Lorentzon. 300 m<sup>2</sup>. 607 82 53 06.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Torrekuan garajea salgai. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Torrekuan. 943 76 28 24/ 39 49 78.

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

**ERRENTAN EMATEKO**

Soto bat alokairuan edo salgai Matxiategin. 166 m<sup>2</sup>. 943 76 28 09.

Garajea errentan edo salgai Ibargarain. 943 76 20 07.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea hartuko genuke. 943 76 23 68 (Maite).

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>. 13,5 milioi. 943 76 11 13.

Lokal bat salgai edo alokairuan. Bulego lanerako prestatuta. 58 m<sup>2</sup>. 607 344 658.

**EROSI**

Lokal komertziala erosi

**ERRENTAN EMATEKO**

Bolun (100 m<sup>2</sup>) eta Arruriagan (18m<sup>2</sup>) lokalak. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean 35 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

**4. LANA**

**ESKAINTZAK**

Administratibo edo

idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia. 943 76 72 31 (gauze).

Garbiketa lanak egiteko neska eskaintzen da. 943 76 45 02 (M. Karmen).

Emakumeak etxeko garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Umeak zaindu arratsalde. 943 76 34 48 (Mayra).

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendarri lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

Emakumea goizez lan egiteko prest. 607 326 706.

Etxeko lanak edo plan-txa ordutua. 943 76 54 82.

Etxeak ordutua edo atariak. 943 76 13 46.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarako dituen. 943 76 30 34.


Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

## ARDATZA Brikolaketa

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 943 76 18 93

## Rizkur



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

**20 urte baino gutxiagoko ITURGINA behar da gidatzeko baimena duena**

607 618 800  
(20:00-22:00)

**Tabernarako ZERBITZARIA behar da esperientziaduna Ikasketekin bateragarria**

943 76 44 49

# AZPEITXI

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

**Jatetxea**



23 urteko mutila lanerako gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran).

Haurrak zaindu edo dendarari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

Neska, tabernari lanak egiteko gertu. 943 76 71 03.

Neska astebukaeretan lan egiteko prest. 629 01 56 91.

Etxe lanak edo haurrak zaindu. 943 76 53 66 (Mari Cruz).

**ESKAERAK**

Neska behar da: haurrak zaindu eta etxe lanak. 943 76 04 64.

Emakumea behar da: bi ume zaindu eta etxe lanak. 943 76 48 76.

Emakumea behar da: umeak zaindu eta etxe lanak. 943 76 38 06.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAITZAK**

Majisteritzan diplomatuak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeles eta frantses

klaseak. 943 76 33 26 (Agurtzane).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

Ingeles filologian lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

LH, DBH eta DBHO. Arazoak dituztenentzat. 656 75 27 39 (Ainara).

**ESKAERAK**

DBH 4.eko ikasleak ingeles klaseak hartuko lituzke. Irakasle euskalduna behar da. 943 76 55 22 (17:00etatik aurrera).

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Opel Ascona 2.000 i (SS-X) . 943 76 41 14.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 943 76 06 53.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauzez).

Kawasaki Volcan motorra (500 cc.). 21.000 kilometro. 943 77 08 69.

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Suzuki motorra egoera onean. 943 76 37 83 (Jose Mari, 10:00-17:00).

Ford Escort familiarra (SS-AK) egoera onean. 656 74 49 14.

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Boxer arrazako txakurkumeak. 696 05 73 46.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Ekonomika, iturriko zein berogailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Apalak. 943 76 25 79.

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa. 10.000 PTA. 943 76 55 63.

366 MH Pentium ordenadorea. Disko gogorra 2 GB, CD eta telebistaren plaka. 943 76 19 16.

Kerosenozko estufa ia berria. 943 76 01 99.

Snowboard bota berriak, 37-38 zkia. 943 76 27 01.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi baffle. 943 88 73 13.

Arrue kotxe-aulkia salgai. 943 76 07 60.

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

**EROSI**

Bizikleta-rodilloa erosiko nuke. 943 75 23 79 (Ana).

**HARTU**

Sukalderako armairua behar dugu. 943 76 11 98.


Berogailuak behar dira familiendako, butanozkoak nahiz elektrikoak. 943 76 72 77 (Caritas).

**GALDU**

Katu pertsa (emea) desagertu zait. Gorri kolorekoa. 943 76 54 26.

Argazki kamera (Minolta Ceneton) ahaztu nuen Tellamendin, hila-ren 15ean. 943 79 37 83.

Xal beltz bat galdu dut erdialdean. 943 76 39 81.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**KOMERTZIALA**  
Bilbo. 26214/5

**KOORDINATZAILEA**  
Donostia. 27058/3

**SOLDADURA IRAKASLEA**  
Debagoiena. 27382/5

**TRAILER GIDARIA**  
Irun. 27510/3

**ILEAPAINATZAILEA**  
Bilbo. 27873/2

**ILEAPAINATZAILEA**  
Ibai eskualdea. 27876/3

**SUKALDARI LAGUNTZAILEA**  
Ibai ezkeraldea. 27879/3

**INJINERU TEKNIKOA**  
Durangaldea. 27900/3

**TELEKOMUNIKAZIO PRESTAKUNTZA ZIKLORAKO ARDURADUNA**  
Bilbo. 27951/2

**KOMERTZIO ELEKTRONIKO IKASTARORAKO IRAKASLEA**  
Bidasoa Behea. 27993/2

**FISIKA IRAKASLEA**  
Bilbo. 27996/3

**INKESTATZAILEA**  
Bilbo. 28031/2

**KOMERTZIALA**  
Arabar lautada. 28040/2

**KOMERTZIALA**  
Bilbo. 28085/1

**EBALUAZIO TEKNIKARIA**  
Egailan. 28103/7

**BEHATOKI TEKNIKARIA**  
Egailan. 28104/5

**INFORMATIKA TEKNIKARIA**  
Egailan. 28106/5

**SOLDADURA IRAKASLEAK**  
Debagoiena. 27382/4

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Bailarako enpresa batek kotxe-pintorea eta mekaniko elektrikaria behar ditu**  
943 78 19 50

Irala 3  
Telefonoa: 943 76 48 26

**IRRINTZI**  
k a f e t e g i a

**SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK**  
RAC  
VASCO NAVARRO

**ITURBIETA**  
Sagardotegia  
Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

**IRAEGI ASEGURUAK**

**AGENTEA-DELEGATUA**

Ramon Maria Lili 6, behea  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54  
Faxa: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Astelehenerik ostiralera:  
9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00



## Santa Marinako erretaula ondare kultural

Konponketak direla eta, uda partean eliza lau hilabetez itxita egongo da


**Santa Marina parrokiako erretaula nagusia Sailkatutako Ondare Kultural deklaratu zuen joan zen abenduan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EAEko beste 67 erretaularekin batera.**

Erretaula hau XVIII. mendekoa da, eta Migel de Irazusta arkitekto ospetsuak egin zuen. Bertan ikus daitezkeen eskulturak, berriz, Carmonarenak dira. Barroko rococo estilokoa dugu Ondare Kultural izendatu duten erretaula hau, eta garai hartan eragin handia izan ei zuen erretaulagintzan, berrikuntza garrantzitsuak ekarri baitzuten.

### BERRIKUNTZA ETA KONPONKETAK

Bestalde, aipatzekoa da Santa Marinan egingo diren konponketa eta berrizatze lanak. Iaz, lehenengo fasean, erretaula nagusia fumi-gatzen hasi ziren, eta jausteko arriskuan zegoela konturatu ziren, ondo lotu beharra zegoela, beraz, bi lan hauek batera egin ziren.

Bigarren fase batean, berogailua, argiztapena, megafonia eta elektrizitate sistema guztiaren berriztatzeari, eta eliza pintatzeari ekingo zaio. Fase honen proiektua otsailean aurkeztuko da bai Foru Aldundian eta baita Gotzaitegian ere, eta ekainean konponketa lanekin



Santa Marinako erretaula nagusia, XVIII.ekoa da.

POL. POL. ARGAZKI TALDEA

hasiko direla espero dute. Lau hilabete-an bukatuta egongo dira, eta, bien bitartean, itxita egongo da Santa Marina eliza. "Denbora horretan, beraz, San Pedroko elizara joan beharko dira Santa Marinako eliztarrak" Xabier Azkoitia parrokoak esan digunez.

Hurrengo fasean, berriz, erretaula nagusia berriztea aurreikusten dute. Orain dela 30 urte inguru erretaula guztia barnizatu zen, eta gainetik hautsa

hartu duenez, osorik garbitzeko premia dauka.

Behin hiru fase hauekin bukatzen denean, "organua berriztea eta eliza kanpoaldetik txukuntzea gustatuko litzaiguke", dio Xabierrek.

Erretaula Ondasun Kultural izendatzeak badu eraginik konponketa lanean, izan ere, izendapen horrek, ondare hori ondo babestuko dela bermatzen du. Konponketa edota berriztapenak egin nahi izanez gero, aurrekontu eta proiektu zehatzak aurkeztu behar dira, eta konponketa horien gaineko kontrola zorrotzagoa da, monumentua hobeto zainduko da, beraz.

Finantziarioari dagokionean, elizaren egituraren konponketak, "% 50e-an finantziatzen ditu Foru Aldundiak; hori dela eta, Gotzaitegia, Udaletxea eta eliztarren laguntza ezinbestekoa zaigu" Xabier Azkoitiaren esanetan.

### ELIZAREN BERAREN IZENDAPENA

Xabier Azkoitia parrokoak esan digunez, izendapena oraingoan erretaula nagusiak bakarrik jaso duen arren, datozen hilabeteetan izendapena eliza osora zabalduko dutela espero dute, eta horren zain daude. Lehenengo aldiz 1973. urtean eskatu zen, baina bertan behera laga zuten eskakizuna.

*izeder*

**ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak**

943 76 71 05. Arruriaga 2



**PINTURAS BERGARA S.L.**

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.



## Bailarako euskarari buruzko liburua idatzi du Koldo Zuazok


**Euskara batuari bere garrantzia aitortu behar zaion arren, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie euskalkiei. Horren adibide dira azkenaldian argitaratzen ari diren euskalkien azterketak, esaterako, iaz lone Larrañagak argitaratu zuen Antzuolako euskararena.**

Oraingo honetan, Koldo Zuazo eibartar irakasle eta idazleak Deba ibarreko euskara aztertzen duen liburua dakarkigu, bailarako udal guztien laguntzarekin argitaratu dena.

Liburu honek hiru atal dauka: lehendabizikoan, bertako euskara aztertzen du, hau da, bailarako euskalkien ezaugarriak. Bigarrenean, bere ondorio propioak ateratzen ditu, eta, azkenik, euskalkien etorkizunaz mintzo zaigu egilea.

Deba ibarrean 70.000 euskal hiztun inguru bizi da eta hauetatik 60.000 dira bertako euskalkian hitz egiten dutenak. Koldo Zuazoren arabera, hiru euskara mota ditugu Deba ibarrean: Debagoienekoa, Debaerdikoa eta Debabarrenekoa. Gipuzkoa, Araba zein Bizkaiko euskararen eragina nabaria da, gainera.

Liburua abenduan argitaratu zen arren, egun hauetan hasi dira aurkezpenak egiten, eta bailarako herri guztietan egiteko asmoa dago. Joan zen eguakitzean Elgetan egin zen eta jende mordoak bildu zen. Eguenean, berriz, Eskoriatzako Udaletxean egin zen aurkezpena. Bergaran ere, pare bat aste



Argitaratu berri-den liburuaren azala.

barru aurkeztuko du bere liburua Koldo Zuazok, baina ez da oraindik datairik zehaztu.

### KOLDO ELEIZALDE

Azkenik esan, Eusko Ikaskuntzak, Bergarako Udaletxearen laguntzarekin, Koldo Eleizalde bergararraren bizitza eta lanari buruzko liburua argitaratu duela. Koldo Eleizalde XIX. mende amaieran Bergaran jaiotako euskaltzale, abertzale, irakasle eta Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat izan zen, oso gizon polifazetikoak. Azken liburu honen aurkezpena ere laster egingo dela uste dute, baina ez da egunik jarri.

### erreseinak



**Ion Arretxe**  
**Ostiralak**  
Ipuin bilduma

"Ostegunak" bere azken liburu arrakastatsuen jarraipena dugu oraingo "Ostiralak" lan berri hau. Ostiraleko munduan barneratzen da Ion Arretxe 6 ipuinez osatutako bilduma honetan. Ipuin laburrez osatuta egoiteak irakurteraztasuna ematen dio liburuari. "Ostegunak" liburuan ikasleek bizitzaz ari zitzaigun bitartean, oraingo honetan, ikasle bizimoduari utzi nahi ez eta lan mundua saihestearren sekulakoak egiten dituztenen bizipenak ekarri nahi dizkigu idazleak eskuartera.


- Elkar. 134 orrialde. 1.450 PTA.



**Mikel Laboa**  
**Gernika zuzenean**  
Euskal kantuak

Bere hamahirugarren diskoa du jandak Mikel Laboak honako hau. Iazko abuztuan Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, Victoria Eugenia antzokian zuzenean grabatu zuen Orkestra Sinfonikoa, Euskal Herriko Gazte Orkestra eta Donostiako Orfeoiarekin batera. Beste hainbat musikariren kolaborazioa ere izan du, hala ere, disko hau egiterako orduan: besteak beste, Jexux Artze, Iker Goenaga eta Josetxo Silgero. Zortzi abesti biltzen ditu diska, tartean bi berri: "Kiromantzidxa" eta "Gure hitzak", Sarri eta Atxagaren letrekin, hurrenez hurren.

- Elkarlanean. 2.200 PTA.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## GURIA

### Taberna

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34



**denborapasa**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMIA

**Ezker eskuma**

1. Pluralean, arrain-mota. 2. Izugarri. 3. Goiena. Nor atzikia. 4. Indioa. Har ezazue! 5. Irudi eta deskribapen adierazgarriak erabiltzen dituzten idazleak. 6. Haur. Bostehun. Istu. Bat. 7. Naizen hau. Nafarroako ibaia. 8. Informazio xeheak. Euskaraz eta kitto! 9. Bokala. Naizen honek. Infin., ukitu. 10. Agiri-mota. Ez eme. Aluminioa.

**Goitik behera**

1. Mugimenduak. 2. Ondasun materialen administrazioa. Potasioa. 3. Su. Egile atzikia. Leherkari ezaguna. 4. Gela. Krustazio-mota. 5. Lanean ematen diren orduak. 6. Asko. Arkuaren erdian. Bokala. 7. Zamorako ibilgailuetan. Tu. Oinarrizko edari. 8. Hatzetako apaingarriak. 9. Uztai. Deialdia. 10. Modu atzikia. Eguzkiak. Kontsonantea.

**Soluzioa**

10. Ki. Etlak. L. 9. Arkua. Deia. 7. Za. Istu. Ur. 8. Eratzunak. 5. Lanordak. 6. Ugari. Rk. A. 3. Gat. Le. TNT. 4. Areto. Buita. 1. Higitkundera. 2. Ekonomia. K. Goitik behera. 9. E. NIK. UKI. 10. Akta. Ar. Al. 7. Ni. Burunda. 8. Datuak. AEk. 5. Kolonstak. 6. Ume. O. Tu. I. 3. Goren. Ak. 4. In. Torizuel. 1. Hegaztzeak. 2. Ikaragarri. Ezker eskuma

**bonofotoa**




Miguel Angel Elkoroberezibar

**Ze ermita egokitu dute etxeazpi honetan?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Sabino Arana Fundazioak Bergaran ezaguna den apaiz bat omenduko du. Nor?  
A- Imanol Sorondo  
B- Serafin Esnaola  
C- Xabier Azkoitia
2. Non egiten ari dira une honetan tenis pista berria?  
A- Agorrosingo igerilekuetan  
B- Labegaraieta kiroldegian  
C- Seminarioan
3. Zein da Koldo Zuazok idatzitako argitaratu berri den liburuaren izenburua?  
A- Debagoieneko euskeria  
B- Geure bailarako euskeria  
C- Deba ibarreko euskeria



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Lurdes Arandorentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Lurdesi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:  
Bonofotoa: **Ramon Maria Lili**  
Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Baqué Superior**  
Kafe ehoa  
Altuera, Nahasia edo Zaporea, 250 gr.  
**229 PTA!**  
Super BMen beti eskaintzarik onenak!



**San Antonion familixiak daukan Hiru-Bide jatetxian egiten dau lan, eta bertan emoten dITU ixa eguneko ordu guztiak 25 urteko gazte honek. Plazentzian jaixota, orain dala 4 urte etorri zan Bergarara bizitzera gurasuekin batera.**

**Zer izan nahi ziñuan txikittan?**

Gauza asko, baiña gehixen, enfermeria.

**Gustatzen jatzu tabernari lana?**

Bai. Lana gustokua dot.

**Zergaittik?**

Jendiarekin egoten zarelako.

**Zer saltzen da gehixago tabernan?**

Kafia eta ardaia.

**Kafe ona ateratzen dozu?**

Oso ona.

**Zenbat txikito etaraten dozu egunian?**

Ez dakit. Asko.

**Zuk edaten dozu?**

Ez dot alkoholik edaten.

**Erretzen dozu?**

Ez.

**Jendiak tabernan erretziak molestatzen dotzu?**

Puruu erretzen darella keia aurpegira botatzen ez badoste, ez.

**Sukaldean aritzen zara?**

Ez. Amaren lana da hori.

**Zein da jatetxiaren espezialidadia?**

"Cocido montañés" eta "Sorropotún", Kantabriakoak.

**Futbolik ikusten dozu telebistan?**

A ze erremedio! Egutero. Lehen gustatzen jatan, baiña orain aspertuta nago.

**Goizian, goiz jaikitzen zara?**

Ez, tabernia nik ixten dot eta.

**Non gosaltzen dozu?**

Tabernan. Ixa egun guztia egitten dot hemen.

## Marta Gonzalez

**Musikarik jartzen dozu tabernan?**

Bai, rantxerak eta horrelakua.

**Zein musika gustatzen jatzu zuri?**

Rocka batez be, 70eko hamarkadakua.

**Talde bat?**

The Who, Scorpions, The Doors,

Lenny Kravitz...

**Barran ala barraren bestaldian hobe?**

Barraren bestaldian, duda barik.

**Bezero hobiak, emakumiak ala gizonak?**

Jeneralian, emakumia, baiña danetik dago.

**Ondo konpontzen zara bezeruekin?**

Gehixenekin bai.

**Beste taberna-motaren batian egingo ziñuke lan?**

Bai, gaztien taberna batian edo diskoteka batian.

**Denbora librian zer egitten dozu?**

Jostia gustatzen jat.

**Ze afiziño daukazu?**

Jostia, irakurtzia, eta eskulanak eta kruzigramak egitea.

**Telebistarik ikusten dozu?**

Bai, tabernan jarrirta egoten da.

**Zer gustatzen jatzu gehixen?**

Lehiaketa bat: "Saber y ganar".

**Ligatzen da barran?**


Bai, ligatzen da, bai.



**POL-POL**

Taberna

☎ 943 76 07 78



**Gallastegi**

*Jostundegia*


Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

**SUBIJAi**

**Gazteentzako moda**

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41



**Ur~bide**  
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617

**Arantza**  
**Erlojutegia**

Barrenkalea 4  
943 76 10 04

**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02





## Jaunartzea San Pedron, 1981

Oraindik jaunartzea egiteko sasoia izan ez arren, orain dela 19 urteko jaunartze eguneko argazkia dakarkizuegu aste honetan. Argazkian agertzen diren neska-mutikoeak 8 bat urte izango zituzten orduan eta egun handia izango zen beraiantzat udaberri partean izaten den jaunartze eguna. Aurretik, katekesi klaseak hartuko zituzten eta elizkizunaren ondoren familiartekoekin bazkaria izango zuten ziurrenik. Gainera, opariak jasotzeko eguna izaten zen. Orduan ohikoa zen bezala, mutiko asko mariñel jantzita joaten ziren eta baziren korbatadunak ere tartean. Neskak ere dotore-dotore janzen ziren, zuriz gehienak. Honako hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Mari Carmen Diaz, Alicia Pombar, Sonia Gainza, Monica Berniel, Noelia Rubio eta Yolanda Torres.

**Hirugarren ilaran:** Ines Poza, Anabel Hernandez, Auxiliadora Macias, Anabel Jimenez, Sonia Rodriguez, Montse Marquez, Maite Fernandez eta Idoia Ramirez.

**Bigarren ilaran:** Juan Maria Sanchez, Rocio Conde, Monica Rodriguez, Maribel Ramirez, Inma Gantxegi, Loli Gimbert, Maite Hervas eta Juan Carlos Horrillo.

**Aurrean:** Angel Barroso, Martin de Goñi, Luis Mari Dacosta, Oscar Ortiz, David Santamaria, Aitor Solaun, ezezaguna eta ezezaguna.

*Argazkia: Maite Hervas.*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

**Dixula**

**BOKATAK  
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95



**zumelaga**

JATETXEA

**54 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25





### EGITARAUA


- Erakusketak
- Jokoak
- Dantzak
- Antzezlanak
- Makilaje tailerra
- Txapa tailerra
- Maskarak
- Bideoak
- Informatika
- Pailazoak

## San Martin Agirre herri ikastetxean ATEAK ZABALIK

**Eskola kontseiluak ikastetxea bisitatzera  
gonbidatzen zaitu**

Urtarrilaren 29an 16:30etatik 19:30etara

B. Laskurain 25  
Tf. 943 76 21 47



### EGITARAUA

- Bilera informatiboa
- Ikastetxea bisitatu

## Ipintza institutuan BILERA INFORMATIBOA

**DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzendua**

**Eskola kontseiluak ikastetxea bisitatzera  
gonbidatzen zaitu**

Urtarrilaren 31n 18:30etan

B. Laskurain 19  
Tf. 943 76 31 42



Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan



**OMU**  
ZERAMIKAK

**Zeramika,  
arte  
unibertsala**



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE